

# EUSKERAZAINTZA

## EUSKERAREN ERRI AKADEMIA

XXXVIII Zenbakia.

1997

Urtarrilla-Epailla

### AURKIBIDEA

Orr.

Apírilla eta esaerak (Barruko orrialdean).	
Erdíaroko Euskal-ízenen idazkera.- Latiegí'tar Bixente .....	1
Bizkaiera ta Gipuzkoera.- Puxana'tar Pedro .....	8
Koine baten bearra.- Zatarain dar A. ....	15
Olabide tar Erráimunda.- Urrestarazu'tar A. ....	17
Itanoa gero ta gitxiago erabilten da.- Umandi .....	22
Europa'ko izkuntzak.- "Quid" .....	25
Aita Ibero'n oraindik argítaratu gabeko eskutitza.- Latxaga .....	27
Carta del P. Ibero .....	29
Balmes'en irizpidea (El Criterio)ko iztegia.- Etxaburua'tar Asier .....	<b>35</b>
Jondane Johana Gaüa.- Janes Oasenave .....	47
Song Txinako Mandarina.- Arrinda'tar Anes .....	52
Erritasunak ez du paperik bearrik.- G. Egaña .....	<b>59</b>
Lengo eta oraingo kezkak. Zelan dua bizkaíerea? Erkiaga'tar E. ....	61
Itxasoa eta esaerak. (Barruko orrialdean).	
Esaldi jatorrak.- Oñatibia'tar Manu'k jasoak. (Kanpoko orrialdean).	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA  
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

# APIRILLA ETA ESAERAK

Apirilla, biribilla, zerria urdandegian illa.

Apirilla, biribilla, urdandegian urde lila. Urde zaina hesi-artean, gasna puska hortz artean, artu puska galtzarpean. Izan balitu aitzintzean, etzuzen ilen agian.

Apirila, biribila, urdandegian zerri hila. Eztabila, badabila; gasna gogorra ortzetan, yan lezake bortzetan.

Apirila biribila, xerria xerritegian hila. Ezta hila, bada hila, buztana badabila, hola izan dedila.

Apirila euritsu, urte ura egitsu.

April, biribil; april, biri-bil; ekazan egun bi ta erdi, orri, artzain panparroi orri, ikusi daiodan polaiña ori.

April urregorri, Marti kakatsu.

Apirila urregorri, Martia kakatsu, izango dogu aurten urtea ogitsu.

Apirila bero, negua gero.

Apirila euritsu, urtea ogitsu.

Apirila otz, ez gari ta ez agotz.

Apirila on ekusi bear dionak, eun urtez bear du bizi. Ñik ba dut eun eta bi, eztu onik bakotxik ekusi.

Apirileko lorea urrea baino ohea; maiatzeko lorea, bapeza.

Apirileko lorea urrea baino ohea; maiatzeko lorea utsa baino ohea.


Apirilen azkenean, orria aitz-ganean.

Jorraillean negu, laborariak: gaixo gu.

## Laguntzalleak

**Gipuzkoako Aldundia**

**Eusko Jaurlaritza**



EUSKERAZAINTZA

I.S.B.N.: 1132-1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Konponketa: Flash Composition, S.L. - Bilbao



# ERDIAROKO EUSKAL- IZENEN IDAZKERA (II ATALA) BALPUESTA'KO GOTZAIAREN LARRUKIAK.

## 804'EKO IDAZKI BAT (VI)

Buka dezagun Asturietako II Alfontso'k idatzitako gutun onen azterketa.

Lau dira aztertzeke gelditu zitzaizkigun toki izenak:

BUSTO            RODIL            REIANTA            CAMBRIANA

BUSTO: "A fonte Sombrana usque ad foz de Busto": "Sombrana deritzan iturritik Busto'ko arrarte-lepo esturaino"

"Busto" Euskalerritik at ere ugari agertzen zaigun toki-izena da. Orrek ez du esan nai Euskalerrian agertzen danean euskalduna ez danik. Araba'n Busto Gazteiz'en egoaldean dagoan mendi-kateko muño bat da, ZUMELZU izenduan erriskaren gaiñean.

Mendi orren beste aldean bada, gaur Trebiño'ko Konterrian, bada BUSTO izeneko erri txiki bat ere, agian mendiari izena eman zion erria.

Ongi ezaguna zaigu guztioi Bizkai'ko Bizkargi mendiaren maldan dagoan BUSTURIA. "Bustu" ori "Busto" da, ezpairik gabe; eta izen osoaren etimologia, BUSTO-URI-A.

Milla aldiz zaillagoa gertatuko zaigu, "busto" k zer esan nai dezakean jakitea. Lopez Mendizabal'dar Isaka'k "busto" itzaren "B" ori, "proteti-koa", ots, "edergaillu" utsa dala diosku, eta "ustu" berriz, "avena salvaje" esan nai duan "ustu"ren aldakuntza. Baña zoritxarrez gure iztegieta ez da ori esan nai duan "ustu"rik agertzen.

"B" edergaillu utsa dala egia ba'litz, etimologi ziurragoa sortu genezake, "usto" gaurregun ere euskerazko itza dala eta "orri", ("hoja") eta "ostape" ("fronda") esan nai duala gogora ba'dakarkigu.

"Osto"ren aldakuntza besterik ez da, beraz, "usto". Ortaz, gure larrukiko ontako BUSTO, etimologiari dagokionez "OSTAPE", ots,"Osto Ugari duan Tokia" ote dugu?

Bi eragozpen irtetzen zaizkit aurrera ori zalantzarik gabe aitortu aal izateko:

Aurrenekoa, "usto" Naparroa'ko Euskeraren itza dala, eta larrukiko "Busto", berriz, Autrigoiien lurretan zegoala.

Bigarrena: Etimologigintzarako "itz protetikoetaz" ain errez baliatzea, batere atsegin ez zaidan gauza dala. Alare, oraingo ontan ontzat artu bearra dut "busto" askoz errezago, legunago eta goxoago agoskatzen dala "usto" baiño. Eta erriari itzak leguntzea ta goxatzea atsegin izan zaiola beti.

RODIL: "de Rodil usque ad Pennilla": "Rodil'dik Aitz Txikiraiño". Esan dezadan bildurrik gabe, ez dakidala izen au zer izan daitekean. Larruki auek bein baiño geiagotan izan dira birridatziak-eta, izen ori aurreneko aldiz nola idatzia izan zan ez dakigu. Lateraz idatzitako dokumentu baten barruan datorkigu. Euskeraz erriak nola esan zezakean ez dakigu. Euskerak "R"z asten diran itz guztiei bezala, aurretik "E" bat edo "A" bat erasten ba'diogu, euskal-itxura aundiko itza biurtuko zaigu: ERRODIL, ARRODIL.

Danadala, Araba'ren sarkaldean, Autrigoiien lurrean beraz, bada RODIL deritzan 1.031 metroko mendi bat. RODA, berriz, abizen naparra da. "Quizá variante de ERROTA, Kerexeta'ren ustez.

REIANTA: "de Reianta usque ad S. Mariam": "Reianta'tik Santamari'raiño". Euskal-antza oro zearo galdurik datorkigun itza dugu noski reianta. Alare nik ez nuke esango euskalduna izanik.

"REI"z asten diran izenak baditugu gaurregun bertan: Reiza, Napa- rroa'ko Basaburu'n, Reizaldo Lazkano'n, Reiu, eta Reizu bi baserri Asteasu'n, Reizu Garaikoa eta Reizu Azpikoa, Reizabal Ormaitegi'n.

Ederki dio Kerexeta'k Reizabal ori Erreizabal'en aldakuntza dala. ri bera esan bearra dala iduritzen zait aipatu ditugun beste izenetaz ere: "R" bat peitzen zaiela, eta izen oien aurrizkia ERREI dala.

"ERREI", berriz, sarkaldeko euskeraz, bizkaieraz, ainzuzen Autrigoi- tarrek itzegiten zuten euskeraz, "SURCO" esaten da gazteleraz: Gipuzke- raz, "LDO".

Ikus emen "errei"z asten diran abizen eta toki-izenak: Erreillaga, Gipuzkoa'ko Baliarraiñ'en. Erreisala, 1750'ean, soro baten izena zan Araba'ko Betolaza'n; eta Araba'n bertan, 1676'ean, Gazeta'n alor bat. ERREITI, frantzeraz Villenave esaten dioten Benaparroa'ko erri baten izena dugu.

Zer ote da ANTA, Reianta'ren azkeneko zatia? Bilbao'ko euskal abizen lez dakar "Anta" ori Kerexeta'k bere iztegian eta ANZA'ren aldakuntza dala diosku. Anza, barniz Donosti'ko euskal-abizena dala. Anzano, Anzar eta Anzati Naparroa'n abizenak dirala. Antarriedo, berriz, toki-izena dugu Araba'ko Lapaebla de la Barka'n eta Kanpetzu'ko Santakruz'en. Baita Antazina ere Kanpetzu'n bertan.

Bere etimologia? Ez dakit. Kerexeta'k, Lopez Mendizabal'i jarraituz noski,

"larre" dala diosku; gazteleraz, "pastizal", "anda", "anza", "anzu"tik ornen datorelako, baiña tamalez, gure iztegiatan ez da deus orrelakorik agertzen.

Esan dezagun beraz izen euskalduna dala, baiñan bere etimologiarik ez dugula ezagutzen.

CAMBRIANA: Izen ori bezala "ANA"z amaitzen diran izenak asko ditugu Euskalerrian eta guk ere maiz mintzatu gera atzizki orri-buruz aldizkari ontan.

Ez dakit, ordea, "KANBRI" zer izan daitekean. Baiñan, naiz itxuraz aldatuta etorri, ez nuke esango euskalduna ez danik, "KAÑB" aurrizkiz asten diran izenak ere bai bait ditugu: Kanbo, adibidez, Laburdi'ko erri polita; Kanborain eta Kanbra euskal-abizen lez datoz Kerexeta'ren iztegian.

XI mendean, Kukulla'ko burni-barren larrukian KANBOA esaten zaio gaur GANBOA esaten diogun Araba'ko erriari. Ori, GAN aurrizkia, izan daiteke izen oien etimologira sartzeko ataka ziur bakarra, eta ez Mitxelena'k artu zuana.

Mitxelena'k "Kanbo"rik eta "Kanbo"tik etorri daitezkean abizenak ez ditu aipatu ere egiten. Soilki, "Kanbo" agian Kelta izan daitekeala dio eta "Ganboa" laterazko "Canpo"tik etorri daitekeala. Arrazoirik ez du ematen.

Gaztelerazko olerki txiki polit bat dakarkit orrek gogora:

"El mentir de las estrellas es muy seguro mentir  
porque nadie ha de ir a preguntárselo a ellas"

"Arriskurik gabeko gezurra, izarren gezurra;  
ez bait zaie iñor kontu-artzera joango".

Ez dut orrekin esan nai Mitxelena'k gezurra dionik, baiña izen euskaldunen etimologiaren billa Keltiarrengana jotzea gauza errezegia dala iruditzen zait, aspaldi ezabatu ziran keltiarretaz, eta bereiziki aien izkuntzaz ezer askorik ez bait dakigu. Eta euskeraz argitu daitezkean izen euskaldunen esana-aia argitzeko latifera jotzea ez dala zillegi esango nuke nik.

Izan erre "GANBOA"k sustrai euskalduna bai baiñ du: "GAN", gipuzkeraz "GAIN", euskeraz "cima" da: "la altura", "la parte alta del terreno". Adibidez, "Urbasa mendiaren gaiña dana da larre" ("La cima del monte Urbasa es todo pastizal").

Zer ote da "BOA". Azkeneko "A" ori artikuloa dugu beintzat. Eta "BO"? Ez dakit. Baiña arrazoirik eman gabe — ez bait dut arrazoirik — ni ere jostaketan asiz, "azpi" esan nai duten "BA" edo "BE"ren aldakuntza izan daitekeala esango nuke. Ortaz, "Ganbo" edo "Kanbo" "bajo la cima" izango litzake.

Danadala, erretolika oni anken-emanetz, larrukiko "Cambriana" zer izan daitekean ez dakidala, apalki aitortu bearrean aurkitzen naiz.

Besterik gabe, bukatu uzten dugu II Alfontso'ren larrukiko toki-i-zenen azalpena. Larruki orrek damaizkigun Doneen izenak gelditzen zaizkigu aztertzeke. Arras gai garrantzitsua, azterketa orrek sarkaldeko euskaldunengana erlijioa — ta erlijioa bide — kultura nondik sartu ziran esango bait digu

Latiegi'tar Bixente

# UESKA'KO URIAN XVII MENDEAN EUSKERAZ?

Baleike. Oraingoz ez dizut deus ziurragorik esango. Soilki, baleikea- la.

Kerexeta'tar Jaime'ren eskutitz bat izan dut irakurtzera zoazen idazlan onen lenen eragillea. Ikus nola:

Aldizkari ontan bertan, Ueska'ko azokan itzegiten zan Euskerari-bu- ruz, 1349'an Uri artako Udalak emandako lege bat aipatu nuan nik bein batean.

Berealaxe idatzi zidan Kerexeta'k lege ori non aurki daitekean galdezka.

XIV mendearen erdian Ueska'n euskeraz itzegiten zalako ori euskera berarentzat ez eza filologi ber-berarentzat ere garrantzi aundiko gauza dalako, lege aren aztarnak billatzen astea erabaki nuan.

Laister, egun batzuk igarotzera, Zalduba'ra (Zaragoza'ra) joan bearra nuan- da, sartu nintzan ango artxiboetara, baiñan ez nuan ezer idoro. "Bartzelona'ra jo bearko duzu, — esan zidaten —, an dago Be-Aragoi'ko Erregetzaren Artxi- bo Orokorra".<sup>33</sup>

Bartzelona baiño bertago neukala Ueska bera-ta, uri ortako udalaren artxi- boko zuzendariari idatzi nion argi-eske.

Emakumea da artxibo aren zuzendaria. Nagi ibilli zitzaidan erantzuna ematen, baiñan ederki zuritu zuan luzapen ori azkenean idatzi zidan eskutitz labur- rean: "Aurdun zegoala, erditze-garaia ere iristen zit- zaiolako legeak ematen dizkion oporrak ertzera zijoala, eta nere eska- ria, aldi ortan bere lekua beteko zuan Jaunaren eskuetan uzten zuala.

Azkar iritxi zitzaidan eskuetara jaun orren gutuna:

Nik aurkitu nai nuan legea, Uri artako artxiboan gordetzen zala, "papel 2" sigla edo adigarriz markatua. Len artxibo-zain izandako agure txit jakintsu baten laguntza eskatu zuala, eta onek esan zionez, lege ori bera maiz eman zuala gero ere Ueska'ko Udalak amazazpigarren mendera arte: "repetidamen- te hasta el siglo diecisiete".

Gauza arrigarria iruditu zaigu beti, Ueska'ko azokan AMAL AUGARREN MENDEAREN erdian oraindik euskeraz itzegiten zala jakitea. Zoro biurtze- ko aiña izango litzake AMAZAZPIGARRENEAN ere itzegiten zala jakitea.

Aztertu dezagun betaz arazo guzia.

Arrigarrja dala, esan dut, XIV mendearen erdian, Ueska'n euskerak bizirik jarraitzea. Izanere, euskerak iñon ez bai du bizia galtzeko an baiño arrisku aun- diagorik eta antziñagorik izan.

Krist'aurreko I mendean asi ziran Ueska'n euskerarentzat arriskuak.

Mende orren asieran laterkideen arteko guda bat gertatu zan Erroma'ko Errepublikan. Guda ori Ispanietan izan zan batez ere gogorra, emen Sertorio Buruzagia Erroma'n agintzen zuan Sila diktatorearen aurka jeiki bait zan, orrela "Bellum Sertorianum" esan izan zitzaionari asiera eman ez.

---

<sup>33</sup> Zalduba? Salduba idatzi zuan Plinio'k, eta aren atzetik joan diran ondorengo guztiak. Baiñan, alde batetik, ezagunak ditugu euskerazko "Z"ren otsa idatziz emateko atzerritarren nekeak, eta, bestetik, Zalduba esatea Salduba esatea baiño errezagoa ta egokiagoa dala iduritzen zait neri. Danadala, "ZAL" aurrizkia daramatenak aiña dira gaurregun "SAL" daramaten abizen eta toki-izenak.

Amairu urtez iraun zuan gudaketa arek Krist'aurreko 80'atik 73'ra, eta bereiziki orduango Ego-Euskalerrri zar edatsu ta zabal artako lurre- tan izan zan odoltsua. Kalagurri, Oska, llerda (Lerida) izan zituan Sertorio'k uri-gaztelu-rik garrantzitsuenak, eta iruetan beste biak baiño geiago, Oska, ots Ueska.

Erroma txiki bat biurtu zigun Ueska, bertan, Erroma'ko Senatuaren antzera, beste Senatu bat antolatuz.

Eta..., euskal-buruzagien semeek latinez erromatarrak bezala ezi zitezen, ikastetxe berejzi bat sortu zuan!

Ez zuan ikastetxe arek azken onik izan. Ezta Sertorio'k ere. Krist'aurreko 72'ean, laguntzaille zuan Perpena buruzagiak il bait zuan aitzoz, artarako ainzuzen gertutu zion otordu oparo batean. Urrengo urtean Perpena bera izan zan Ponpeyo'k garaitua ta traidore lez erailla.

Orrela amaitu zan Guda Sertoritarra, baiñan ez ziran euskerarentzat arriskuak amaitu, Ueska'ra laister sartu zan bE kristautasuna. Bai beintzat, dirudiaz, III mendean. An jaio zan ba mende ortan Bixente Diakono Martiri Donea. Eta au baiño lenago Lorentzo martiri Donea, uste danez.

Lion'go Irineo'k eta Kartago'ko Tertuliano'k esan zutenaren argira, III mende ortan ez zuan oraindik Elizak bere elizkizunetan latiniñ utsa erabiltzen. Bai ordea IV mendean eta ondorengoetan, Biblia latiniñera biurtua izan zanez gero, eta Inperatoreak kristau blurtu ziranez gero, izkuntza sagaratu bihurturik gelditu bait zan latiniña.

Alare, ain naroki erromartua izan zan Ueska'n Euskerak bizirik jarraitzen zuala dirudi.

Bisigotak etorri ziran gero eta irureun urtez berea izan zuten Ueska'ko uria, eta zintzo joaten ziran Toledo'ko Kontzilioetara Ueska'ko gotzaiak. Ueska'n bertan ere egin zuten kontzilio bat inguruko gotzaiak VI mendean.

Zer itzegiten ote zan Bisigoten menpeko Ueska artan? Apaizek eta kultura pixka bateko jendeek latinez, bañan erriak Euskeraz.

Etorri ziran gero arabitarra, eta Ueska'ren jabe egin zitzaizkigun VIII mendetik XI arte. Iru mende oietan zer itzegiten ote zuan Ueska'ko jendeak?

Galde orri erantzun aurretik esan dezagun aurrena, jende aiek euskaldunak zirala. Ispanietara ez zan Arabi'tik eta Afrika'tik gudaria besterik etorri. Eta gudariak ere oso gutxi. Arritzekoa bait da millaka pixka batzuekin nola Bisigoten erreiniña ezereztu zuten.

Orregaitik, Arabitarra etorri gero ere, Ispanietako jendea lengo jende berbera zan, orain osoki musulman biurtua. "Al cumplirse el siglo del conquista, la inmensa mayoría de la población hispanovisigótica había abrazado el islam" (Diccionario de Historia Eclesiástica de España). Azpimarraketa nerea.

Berdin gertatu zan "moroak" artu zuten Euskalerrian ere; Kalagurri, Muskari (Tudela) ta Baskoien egoalde guzian. Lurralde aietako moroak ez ziran moroak, musulman biurtutako euskaldunak baizik. Era berberean, euskaldunak ziran odolez Ueska'ko moroak ere, asieran beintzat agintariak eta gudariak eta ertzainak izan ezik.

Baia musulmanen alboan bizi ziran ugari auzo bereizi batean beste enda bateko jendeak ere: judutarrak. Entzun Jerusalem'en argitaratutako "Encyclopedia Judaica" k zer dioskun:

"Ueska had one of the most important Jewish communities in the kingdom of Aragon": "Aragoi'ko erreiniñuan judu-talderik garrantzitsuenatako bat izan zuan Ueska' k"

"In this time of the muslim rule jews in Huesca engaged in agriculture and

owned fields and vineyards. Many also were craftsmen and traders, especially cloth and silk merchants" "Musulmanen agintaritzakoan nekazaritzak ziran juditzak, alor eta masti ugarien jabe. Bazan aien artean eskulangile eta saleroslerik ere, bereiziki soñeko ta seda saltzailleak"

"This remained the position until the Christian reconquest in 1096": "Orrela jarraitu zuten gauzak Kristauek 1096'ean Ueska adu zutenez gero".

Ueska'ko musulmanen garrantziaz ezer askorik ez dakigu, baiñan ez zan noski txikia izanen; uri artakoa ornen zan bÉ Ispanietako mezkitarik ederrenetako bat. <sup>34</sup>

¿Musulmanen garaiean Ueska'n zer itzegiten zan?

Ezpairik gabe, Udalak 1349'ko erabakian aipatzen dituan iru eleak itzegiten ziran Ueska'n: Erri xeak, euskera; agintariek eta aberatsek, arabiera; juduek, eberkera.

Orrela jarraitu zuan un artako izkuntza-giroak I Pedro Aragoi'ko Errege euskaldunak XI mendearen erdian uri ura artu zuanean ere.

Poliki-poliki, ordea, asi zan Ueska'ko karriketean laugarren izkuntza berri baten doñua entzuten: Aragoi'ko erromantzearen doñua, eta IV mendearen erdian erromantze ori zan agintarien eta jende aberatsen elea.

Gaurko gazteleradunei bezala, Ueska'ko agintari aragoikeradun aiei ere ez zitzaion berea beste izkuntzarik atsegin. Orregaitik eman zuten, iru izkuntz aien erabilketa moztutzeke 1349'an eman zuten agindua. Euskaldunak ziran odollez noski, baiñan euskera galdu zutelako, arabiera eta eberkerari bezain gogor eraso zioten euskerari. Orain ere ez al dira berdin jarduten euskera galdu duten "euskaldunak"?

Ona emen 1349'ko agindu aren tankera:

"Item nuyll corredor non sia usado que faga mercaduria ninguna que compre ni venda entre ningunas personas faulando en algaravía ni en abraych nin en bascuena".

1439'an Ueska'ko azokan euskeraz egiten zuten jende aiek, jatorriz bertako semeen ondorengoak ez baiño I Pedro'k iparretik ekarritako biztanleen oiñordekoak izango zirala, esan dit norbaitek. Ez dut uste. Baiñan ala ba'litz ere, ez litzake negar egiteko gauza izango XIV mendearen erdian Ueska'n euskeraz egiten zala jakitea.

Ez dut, ordea, uste nere adiskide orrek arrazoi izan dezakeanik.

Musulmanak Ispanietara sartu bezain laister asi zuten kristauek "Birrirabazketa" edo "Reconquiata" lana. Baiñan "reconquista" ori ez zan alde guztietan berdiña izan. Asieran beintzat jende aldaketa aundiak gertatu ziran sarkaldean Asturietatik asi zan "reconquista"n. Euskale-rritik asi zanean ez zan beñere jende-igiketarik izan.

Asturietako Erregeak bisigotak ziran, "Rex Gothorum" esaten zion aietako bakoitzak bere buruari, eta zearo bisigotiarra zan aien oldozkera, "inperialista". Ispani guztiaren jabe zirala uste izan zuten eta Ispani osoa nai izan zuten birrirabazi. Orregaitik raso zioten Euskale-rritari musulmanei bezain gogorki.

Euskaldunak eta Galizi-aldeko Suebitarrak menderatu bearrak ziran, eta Musulmanak eta Kartajena-inguruko Bizantziotarrak Ispanietatik bidali bearrak.

Emen, Euskalerrian, ez zan orrelako mentalitaterik izan. Arabarrek, bikainki eutsi zieten Bureba'ko lurretan musulmanen eraso guztiei, eta naparrek, bate-

<sup>34</sup> Gasteiz'ko Seminarioan badugu, Paris'en 1960'ean argitaratzen asi zan "Encyclopédie de l'Islam", baiñan bere 6'an alean oraindik soilki "N" izkira bakarrik iritxi da. Arabieraz, berriz, Ueska'ren izena, "W"z asten dalarik, Washka ornen da.



re inperialismokeririk gabe, soilki galdu zuten lurra birrirabazteko iden ziran gudara. Naparroa'ko erregeek ez zituzten artzen zituzten urietako musulmanak ez aitzoz iltzen ez legez erbeste- ratzen. Judutarrak bezala, zeuden tokian gelditzen ziran, agintari eta orrelako gizakume aundikiak izan ezik.

Gaiñera, esan dugun bezala, musulman aiek odolez beintzat euskaldunak ziran, len musulman egin ziran bezala orain, geienak beintzat, krjstau biurtu ziranak.

Gauza bera gertatu zan Aragoi'ko birrirabazketan ere, batez ere kristauak lbero ibaiaraño iritxi ziran arte. Aragoi'ko lenen errege aiek danak euskaldunak bait ziran, Naparroa'ko III Santxo "Nagusia"ren oiñordekoak. 35

Euskaldunen erara egindako birrirabazketan ez zala jende-aldaketarik izan esan dedanean, soilki esan dedana esan nai izan dut: Erriko jende xearen artean ez zala jende-aldaketarik, ez noski agintari, gudari eta aundikien aldaketarik izan ez zanik.

1349'ko agindu ori gero ere XVII mendera arte Ueska'ko udalak bein baiño geiagotan eman zuala idatzi bait djt udal artako artxibazaiñak, ori ikustean, agindu ori seguruaski udalak oituraz artutako lelo bat bezala emana izango zala, esan dit beste adiskide batek.

Onek ere arrazoirik ez duala iduritzen zait. Eta ala ba'liz ere, Ueska'ko udalak XIV mendeaz gero ere euskerari-buruz kezka bat beintzat bazuala adierazi najko liguke.

Alatagutziz, ori eskierki aitortu aal izateko auzi orri-buruz, onako xeetasun auek ikusi bearrak ditugu:

- Euskerari dagokion erabaki ori beste erabaki batzuen artean agertzen danez gero, beti, bere aurretik eta atzetik, erabaki ber-bereren artean agertzen dan;

- Beti itz berdiñez idatzia agertzen dan.

XVI garren mendean beintzat ez daiteke agindu ori soilki oiturak bultzatuta ainbeste aldiz birreman izan, XV mendearen barruan, 1492'az gero, Ueska'n ez bait zan "abraich" itzegiten zuan judurik. Urte ortan bidali zituzten ba Errege Katolikoek beren erreñuetatik judutar guz- tiak.

Ezta XVII mendean ere. Mende orren asieraz gero Ueska'n ez bait zan "algaravia" itzezin zetzakean musulmanik, 1609'an bidalj zituan ba III Felipe'k Españi'tik "morisco" guztiak.

Baiñan... ¿itzegiten ote zan Ueska'n euskerarj;k XVII mendean?

Oso zail egiten zait orrelako mirari bat sinistea. Artxibozaññaren gutunak izkera illuna darabilki. Udalak agindu ura "hasta el Siglo XVII" ari izan zala ematen, diosku.

"Hasta" ori bear aiñako zeztasunik ez duan itza da. Zer esan nai du? XVII mendean ere bai? Edo, XVII mendearen asiera arte?

Alare ez litzake gertakizun makala izango XVI mendean Ueska'ko unan euskerak bizirik jarraitzea!

Danadala ezin bestekoa da Ueska'ko udalaren artxiboa ikertzeko uri artara ibillaldj bat egitea. Badut asmoa. Eta, ortarako, nik baiño geiago dakian Latxaga'ri eskatu diot laguntza, eta biok egingo dugu ain gogozkoa dedan ibillaldi ori.

Izanen duzu an aurkitzen dugunaren berri.

LATIEGI'TAR BIXENTE

<sup>35</sup> Ibero ibaiaren ondoan dago Alagon (erromatarren Alauona Basconum). Edesti-gaietan Doktore dan ango neskatil batek esaten zidan joan dan udan, I Jaime'k uri ora artu zuanean, beretan gelditu zirala la musulman danak.



# BIZKAIERA-GIPUZKOERA: BERDIN ETA EZBERDIN

## SARRERA

Bizkaierak eta gipuzkoerak (beste euskalkiek ere bai) izkuntza bat egiten dute, ezberdintasun edo betelakotasun nabarmenak izan arren. Oiñean, sus-traien izkuntza bat.

Idazlan ontan eta urrengokoan ekarriko ditudan gauzarik asko euskera guz-tiari, ots, euskalki guztiei dagozkie bearbada, baiña nik bareziki bizkaierari eta gipuzkoerari buruz jardungo dut, ongien ezagutzen ditudan euskalkiak oietxek diralako.

Bizkaiera naiz gipuzkoera euskera da, "eta euskera dan ezkeru, euskera batua ere bada, euskeraren sustraian, oiñarrian (edozein euskalkitako euske-raren sustraian, oiñarrian) dagoan euskera batua, betitik baturik dagoan eus-ker" (MIKEL ZARATE, "Euskal deklinabidea", 9 orr. Derio-Bilbao, 1975).

Bizkaierak eta gipuzkoerak **non** eta **zertan** bat egiten duten, aundi-aundika bederen, zeaztu nai nuke lan ontan, eta **non** eta **zertan** ez duten bat egiten, urrengoa, irakurleei jakingarri eta argigarri izan dakien.

## LEENENGO ATALA: ZERTAN BAT EGITEN DUTEN

### EUSKAL ADITZAREN BARNE -EGITURA

"Izkuntzaren ardatza, besteak beste, aditza dana gauza agiria da. Aditzak bere inguruan darabiltz esakunaren osagaiak, eta berak bateratu be batera-tzen dauz. Aditza dogu gidari, argi-emoile, esangurearen adierazle. Aditzik бага, esaldia nora-ezean daukagu, baso illun baten nora joan ez dakiala dabi-llan ibiltariaren antzera" (ZER, 102 zenb., azilla/zemendia, 1986, 2 orr.).

Ikus dezagun, orretxegatik, euskal aditzaren barruko oin-egitura bat eta bakarra dugula, garrantzi aundiko arazoa baita au, euskera izkuntza bat dugu-la frogatzeko.

"IRU ABE edo SUJETUren gaiñean eregia daukagula esan leiteke euskal aditza: NOR, NORI eta NORK abeen edo "sujetu"en gaiñean. Iru abeok dira aditzaren eusgarri eta adierazgarri. Euskal aditzak iru "sujetu" daukazala esan dau norbaitek orrexegaitik.

Adibide bat ekarri nai izan ezkeru, auxe esango genduke: zugaitz lodi bat daukagula egin daigun. Zugaitz orrek iru erro edo sustrai daukaz euskarri. Iru sustraion gaiñean ikusiko dogu zugaitzaren gerria. Zugaitzaren gerri orreetatik ainbat adabeso edo besanga datoz, eta adabeso edo besanga orreetatik ainbat eta ainbat abar loratsu. Nik onantxe ikusten dot" (aipaturiko aldizkarian, 3 orr.).

Auxe irakasten digute maixuek. Ikus, adibidez, "ADITZA" izeneko liburua (Método NOR-NORI-NORK o el secreto del verbo vasco), Baztarrika'tar Isidor. -Lazkao-ko beneditarrak, 1968).

Bertan auxe dio egileak: "Lan ontan euskal aditza bere barnetik aztertzen saiatu naiz. Bere estructures, jokabide ta tankerak billatzen. Eta atara dutana emen eskeintzen dizut. Aditza euskal metoduz azaldu nai nizuke ta ez erdal metoduz. Aditzaren oinarri ta ardatz bezela NOR-NORI-NORK izkiak artzen ditut. Metodu oni "NOR-NORI-NORK metodu" ederki deritzaioke" (sarrera).

Patxi Altuna euskaltzainak ere Baztarrika'tar Isidor-en antzera itz dagigu: "Hiru zutabe hauen gainean eraikia duzu, esaterako, euskal aditza: NOR zutabea, NORI zutabea, NORK zutabea" (EUSKAL ADITZA-BATUA BATURAKOA, Bilbo, 1971, 11 orr.).

Bidenabar auxe argitu nai nuke: euskal aditza irakasteko ÑOR-NORI-NORK deritzan bidea gure egunotan ontzat artua eta guztiz zabaldua dugu Euskalerriko ikastetxe guztietan. Irakaspide onen asmatzaillea Bazterrika'tar Isidor (G.B.) dela iragar ote dezakegu? Berak liburuaren asieran dakarzkina itzak eta leentxoago ekarri ditugunak burutan ar baditragu, baietz dirudi. Bestalde, 1968-garren urtean kaleratu zuen liburuaren aurretik beste liburu batean ez baita, nik dakidala beintzat, irakaspide ori agertzen. NOR-NORI-NORK izki-morfemaz baliatuz, irakaspide berri ori asmatu eta antolatu berak egin zuela baieztu dezakegula uste dut.

Iru zutabe edo "sujetu"ok oneek dira:

NOR zutabea		NORK zutabea	
N-	(ni)	-T	(nik)
	(i)	-K (-N)	(ik)
D-	(ura)		(arek)
G-	(gu)	-GU	(guk)
Z-	(zu)	-ZU	(zuk)
Z-	(zuek)	-ZUE	(zuek)
D-	(aiek)	-TE	(aiek)
Ikus N-a-tor, G-a-ra...		z-a-it-u-T, n-a-kar-ZU...	

#### NORI zutabea

##### IRAGANGAINTZA (bizk.-gipuzk.)

-KIT	(neri)
-KIK/-KIN-KINA	(iri)
KIO	(ari)
-KIGU	(guri)
KIZU	(zuri)
KIZUE	(zuei)
KIE	(aiei)

Ikus d-a-tor-KIO, z-a-tor-z-KIT...

**Oartu:** 1) Berenez, NORI morfemak aukeratu dira: -T, -K/Ñ, -O, -GU, -ZU, -ZUE, -E.

2) -KI ori datibu-aurreko izkia da (infijo predatival).

#### IRAGANKORRA

##### BIZKAIERA

ST-
SK-
TSO-
SKU-
TSU-
-TSUE-
TSE-

##### GIPUZKOERA

-KIT/DA	(neri)
-KIK/N	(iri)
-KIO	(ari)
-KIGU	(guri)
-KIZU	(zuri)
-KIZUE	(zuei)
-KIE	(aiei)

Ikus d-a-kar-ST, d-a-kar-TSU-t

d-a-kar-KIO-t, d-a-kar-KIK...

**Oartu:** Aditz iragankorrari dagokionez, NORI izki-morfemak ez-berdiñak dira bizkaiera eta gipuzkoeraz, eta auxe da euskalki bjon artean daukagun ezberdintasunik aundienetakoak, urrango lanean argituko dugunez.

Iru zutabeok eusten diotela euskal aditzari, esan dugu. Eta irurok bata-beteari josirik, damaigute aditzaren oin-egitura. Ez dira irurak adizki guztietan agertzen. Bat bakarrik ager daiteke, naiz bi, naiz iru.

Iru zutabe auetatik LAU ADIZKERA sor daitekez:

A). **NOR** bakarrik duena.

- "Aita etorri da". NOR etorri da?

Auxe da inoiz falta ez den adizkiaren osagaia. NOR gabeko aditzik ez daukagu euskeraz, diote gramatikari batzuek. (Ala ere, aditz iragankorrari gagozkiola, NOR ez da beti agertzen, geroago ikusiko dugunez).

B). **NOR** eta **NORI** batean dituana.

- "Aita etorri zaio / jako semeari". NOR etorri? NORI etorri?

NORdun eta NOR-NORIdun adizkerok aditz **iragangaitzari** dagozkio (gaztelaniaz "intransitivo" deritzonari, alegia). Euskeraz iragangaitza esan daiteke, edo norberagango aditza, aditzaren jarduna edo ekintza NOR delakoak artzen du eta.

- "Peru badator". NOR dator? Peru: ots, **etorri** aditzaren ekintza PERUgan betetzen da. Gaztelaniaz "sujetua" deitzen diote.

D). **NOR** eta **NORK** elkaturik dituana.

- "Aitak semea zaldiz ekarri du" NORK ekarri? NOR ekarri?

E). NOR, NORI eta NORK alkarri josirik dauzkana.

- "Peruk aitari morroi berria ekarri dio" NORK ekarri? NOR ekarri? NORI ekarri?

NOR-NORKdun eta NOR-NORI-NORKdun aditzak **iragankorrek** deritzate-nak dira, au da, gaztelaziaz "transitivo" deitzen direnetakoak. Euskeraz **iragankorra** edo besterengango aditzak dei dakizkieke, ots, aditzaren jarduna edo ekintza ez "egillea" (agente) danarengan, beste norbaitengan edo zerbaitetan betetzen da eta. **Adibidez:**

- "Aitak **nerau** ekarri nau". Au da, **ekarri** aditzaren ekintza NORK (aitak) ez dan beste batek jasatzen du.

Beste izpide batez: aditzaren ekintza aigandik neronengana aldatu, Iragankorra, beraz, edo besterengango aditza.

Aditzaren jarduna edo ekintza jasatzen duen zati orri gaztelaniaz "complemento directo" (objeto directo) esaten zaio. NOR zutabea, ondorenez, aditza iragangaitza izanez gero, gaztelaniazko "sujetua" da beti, eta aditza iragankorra denean, esaldiaren "complemento directo" delakoa.

Euskal aditz guztiari begira bagagozkio, leenengo egin bearreko banaketa edo sailketa, Txillardeggi gramatikariak dioskunez, auxe da: NOR aditz-moltzoa (iragangaitza), batetik, eta NOR-NORK aditz-moltzoa (iragankorra), bestetik (EUSKAL GRAMATIKA, 202 orr.).

Urrango au ere gomutan artu bearrekoa da: NOR-NORI-NORK (norbait) izan bearrean, ZER-ZERI-ZERK (zerbait) izan daitezkeela, naiz, bat, naiz bi, naiz irurak. **Agerbidez:**

- "Euriak lorak busti egin ditu". ZERK busti? ZER busti?

- "Iñakik etxe berria erosi dio bere semeari". NORK erosi? ZER erosi? NORI erosi? Kasu ontan, NORK-ZER-NORI izango litzateke. Eta abar, eta abar.

## 2.– BI OIN-ALDI edo ETORBURU NAGUSI

Euskal aditzak bi oin-aldi edo etorburu nagusi (dos tiempos fundamentales) dituela esan daiteke. Orixe irakasten digute jakintsuek.

"Morfológicamente hablando las flexiones auxiliares se pueden considerarse en su mayor parte...como derivadas o tributarias de las que figuran en el presente y el pretérito imperfecto de indicativo, que son dos tiempos matrices o radicales" (ARTURO CAMPION, GRAMATICA BASCONGADA DE LOS CUATRO DIALECTOS LITERARIOS, 366 orr.).

Oin-aldi edo etorburu/sorburu nagusi oiek urrengo biok dira:

A). EGITERAZKO (indikatibozko) ORAINALDIA (edo PRESENTE BERRIA)

Au da:

Aditzaren jarduna orain (gaur, aste ontan, aurten...) gertatzen dela adierazten du. Adibidez:

– "Ni gaztea naiz" (orain) (iraganga)tza

– "Nik liburua erosi dut" (orain) (iragankorra).

B). EGITERAZKO (indikatibozko) LEENALDIA (edo PRESENTE ZAARRA)

Ots: aditzaren jarduna leen (atzo, joandako astean, igaz...) gertatu zela erakusten du.

Agerbidez:

– "Ni gaztea nintzan" (leen) (iragangaitza)

– "Nik etxea erosi nuen" (leen) (iragankorra).

Bi oin-aldi edo etorburu/sorburu nagusi oietatik sortzen dira aditzaren era eta aldi guztiak (modos y tiempos verbales).

Beste era batera esan:

Bi oin-aldi nagusietako adizkerak dira beste adizki guztien etorburu edo sorburu, au da, sorrera ematen dietenak. Au dela eta, adizki eratorriak deritze.

"La formación de los tiempos vascos no ofrece dificultad alguna. Los tiempos están perfectamente caracterizados, y todo ello queda reducido a combinar cierto número de nombres verbales con las flexiones auxiliares, y estas se ve a primera vista se deducen, en gran parte, unas de otras y todas de los tipos (tiempos fundamentales)... La verdadera dificultad estriba en las numerosas categorías de flexiones, y aun éstas se ajustan en su formación a un plan bastante riguroso para que, una vez en posesión de su clave, se puedan formar lógicamente y decir a priori en la mayor parte de los casos" (Campion, aip. lib., 363 orr.).

"Nadie podrá contradecir que el euskera ha obtenido resultados prodigiosos valiéndose de los elementos más sencillos: es verdad que de reinar en un sistema verbal la complicación que reina en los de otros idiomas, fuera totalmente imposible la retención en la memoria" (aip. lib., 363).

## 3.– GARRANTZI AUNDIKO JAKINGAI BAT

Ondoren azaldU eta argitu nai nuken gai onek garrantzi aundia baiño aundiagoa du euskal aditzaren zer-nolakoa beronen osoan ulertu aal izateko, bizkaierari eta gipuzkoerari dagokionez beintzat. Au uler ez dezanak ez du inoiz euskal aditzaren zer-dena argi ikusiko. Agertarazi dezadan aal dudarik eta argien.

**Lau aditz laguntzaille** (gutxienez) ditugu euskeraz: bi aditz **iragangaitzean**: IZAN eta EDIN. Beste bi aditz iragankorreetan: UKAN (EDUN) eta EGIN (bizkaieraz), eta UKAN eta EZAN gipuzkoeraz (eta beste euskalkietan).

## LAGUNTZAILLE IRAGANGAITZAK

IZAN laguntzaille iragangaitza euskalki guztietan daukagu bizirik, baina gaur-egunaren jokorik asko galdurik ditugu. "En nuestros días es también defectivo, ¿quién diría?, el verbo **izan**, ya no naturalmente, sino por desgaste. La faltan el imperativo, el subjuntivo y, por lo general, aun el potencial. En vez del viejo **biz**, sea, decimos hoy **izan bedi** (**beite, bite**). (AZKUE, MORFOLOGIA VASCA, Bilbao, 1923, 509 orr.).

Ona zein eratan eta alditan jokatzen den IZAN aditza:

- **EGITERAN**: (indikatioan):
  - **Orainaldian**: "Etorri **n-a-iz**"
  - **Leenaldian**: "Etorri **n-intza-n**"
- **BALDINERAN**: "Etorri **ba-n-intz**"
- **ONDORIOZKOAN**: "Etorriko **n-intza-ke**"

Azkuek esan digunez, ez dugu jokatzen **subjuntiboan**, ez **aginteran** (imperatioan), ez **aaleran** (modo potencial), ezta subjuntiboazko Baldintzetan ere.

EDIN laguntzaille iragangaitza, berriz, ez da **EGITERAN** jokatzen (eta ez da inoiz ere jokatu, diotenez), baiña bai:

- **SUBJUNTIBOAN**:
  - **Orainaldian**: (etor) **n-a-di-n, a-di-n, d-a-di-n,...**
  - **Leenaldian**: (etor) **n-e-n-di-n, e-n-di-n...**
- **AGINTERAN**: (etor) **n-a-di-n, da-di, b-e-di...**
- **AALERAN**: (etor) **n-a-ite-ke, a-ite-ke, d-a-ite-ke...**
- **SUBJUNTIBOAZKO BALDINTZETAN**:
  - Orainaldian**: (etor) **ba-na-a-di, ba-a-di, ba-d-a-di...**
  - **Leenaldian**: (etor) **ba-n-e-n-di, ba-e-n-di, ba-l-e-di...**

## LAGUNTZAILLE IRAGANKORRAK

Aditz **iragankorreetan** ere bi laguntzaille ditugula esan dugu: UKAN/EGIN (bizkaieraz), eta UKAN/EZAN (gipuzkoeraz eta beste euskalkietan).

Au da: UKAN euskalki guztietan darabilgu, IZAN laguntzaille iragangaitza bezala, eta aditz beronek daukan barruti ber-bera du, ots, IZAN iragangaitza zein eratan eta alditan jokatzen den eta antxe UKAN iragankorra ere.

Bigarren laguntzaille iragankorra, (EGIN/EZAN), ostera, EDIN iragangaitza non jokatzen den eta antxe EGIN (bizkaieraz) eta EZAN (gipuzkoeraz) ere.

Onezkerok, euskal aditza aztertzerakoan, eta ALDI edo ADIZKI ERATORRIEL buruz, beti-beti burutik kentzeke eduki bearreko **oiarkizun bikoitz** au egin bear dugu:

1). **Leen oin-aldi** edo **etorburuari** bagagozkio (egiterako orainaldiari, alegia) laguntzaille iragangaitzeko adizki guztiak (subjuntiboazkoak, aginterazkoak, aalerazkoak eta subjuntiboazko baldintzazkoak), **ez dira** IZAN laguntzaille iragangaitzetik sortzen, EDIN bigarren laguntzailletik baizik, aipaturiko era eta aldiotan IZAN iragangaitza ez baita jokatzen, goratxoago Azkuek esan digun bezala (ikus leentxoago jarri ditugun adibideak).

2). Bigarren **oin-aldi** edo **etorburutik** (egiterazko leenalditik) datozten **bal-dinerazko** eta **ondoriozko** adizki iragangaitzak IZAN laguntzailletik sortzen zaizkigu. **Adibidez:** "Ni etxera garaiz etorriko **ba-nintz**, ondartzara joango giñake (g-intz-a-z-ke).

Eta **subjuntibo**zko leenaldikoak eta **baldintzazkoak**, berriz, EDIN laguntzailletik. **Argibidez:** Ni (etor) n-e-n-di-n (para que yo viniera). "Aita etor ba-l-e-di" (si viniera el padre). Eta abar.

Aditz laguntzaile iragankorrek direla eta, auxe berau ber-esan bear dugu, **alegia**, **adizki eratorriei** buruz, **IZAN/UKAÑ**, alde batetik, eta EDIN/EGIN/EZAN, bestetik, bata-bestearen kideko direla kontutan arturik:

Bestetara esanez:

Iragangaitzean IZAN aditz laguntzailletik sortzen diren adizki eratorriak bezala iragankorrean UKAN laguntzailletik datoztela. Eta alderantziz: iragangaitzean EDIN laguntzailletik jaiotzen diren adizki eratorrien antzera, iragankorrean EGIN/EZAN (zein euskalki den) laguntzailleak damaizkigula.

Au burutik ken badezagu, ulertezia egingo zaigu euskal aditza.

#### 4). ADIZKIEN OSAGAIK (elementos constitutivos de la flexiones)

Zati au ere berdintasunari dagokio, aipatuko dugun salbuespena izan ezik.

Nor-Nori-Nork (Zer-Zeri-Zerk) adizkiaren osagaiak dira. Osagai geiagorik ere bada, baina, orain ikusiko dugunez.

Adizki bakoitzaren barruan osagaiok zein lekutan eta eratan ezarri bear ote dira?

Edozein adizkitan (iragangaitzean, iragankorrean, sintetikoan, perifrastikoan) dakusgun egitura edo erabide jatorra, auxe da:

- **Leenengo** osagaia beti NOR da (ikus NOR zutabe, asieran) -N-a-tor, D-a-go, **G**-oa-z.

Naiz orainaldian, naiz leenaldian:

- N-intz-a- n, **NIND**-u-zu-n, ba-N-intz, ZIND-u-z-ket...

- **Bigarren** osagaia aditzaren **erroa** edo **sustraia** izan oi da: - n- a- TOR, d-a-BIL, n-a-KAR-zu...

- **Irugarren** osagaia (**bizkaieraz**) NORI izkia edo morfema da: - d-a-tor-KIT, d-a-kar-ST... (ikus NORI zutabea).

- **Laugarren** osagaia ÑORK morfema euskalki guztietan: n-a-kar-ZU, zind-u-DA-n, eta abar.

- **Bosgarren** osagaia (**bizkaieraz**) askotarako izkia edo pluralgille: d-a-roa-zu-Z, d-a-tor-Z...

- Sejgarren osagaia **erako** eta **aldiko** (modo y tiempo) **ezaugarria** da: (eraman) n-i-zu-N, (ekar) d-eza-i-da-zu-N, eta abar.

### EUSKAL ADITZAREN ARAUGETASUN EDO IRREGULARTASUN BAKARRA

Baiña aditz guztiari dagokion barne-erabide au, **kasu batean**, ots, aditz **iragankorrean** eta **egiterazko leenaldian**, NOR (objeto directo) **irugarren maillakoa** (pertsonakoa) denean, **apurtu** egiten da.

Bestela esan:

NOR izkiak edo morfemak adizkietan dadukaten lekua, au da, leenangoa, ongo dakigunez, ÑORK izkiak artzen dute.

IKUS:

—"Zuk ekarri NIND-U-ZU-N"

Adizkera ontan osabidea auxe da: NIND=NOR, -U=ERROA, ZU=NORK, -N=LEEN. EZAG. Dakusgunez, NOR (NIND-) leenengo maillako edo pertsonakoa da. Ekar dezagun orain NOR irugarren maillakoa den adibide bat:

—"Nik etxe berria erosi N-U-E-N / N-E-U-AN (neban).

Adizkera ontan erabide auxe daukagu:

N=NORK, -U=ERROA, -EN=LEEN. EZAUG. Beraz, ez daukagu NOR morfemarik.

Egitura berau ikusiko dugu adizki eratorrietan ere.

Esaterako:

Baldineran: "Liburua erosi BA-N-U".

Ondoriozkoan: "Liburua erosiko N-U-KE".

Egitura berdiña: BA-N=NORK, -U=ERROA, -KE. NOR falta da.

Euskal aditzaren araugetasun edo irregulartasun bakarra auxe dela diote jakintsuek.

Aditzaren barne-osakera au zer dela eta apurtzen den jakin nai izango lukenari Azkue aundiak bere MORFOLOGIAN dakarzkiz itzak aipatuko nitzioke: "Es posible que esta gran anomalía sea producto de lo que en Física llaman atracción del vacío. La tercera persona del paciente, así como tiene d como característica en conjugación próxima, en conjugación remota no tiene ninguna... Lo cierto es que ese vacío de los objetos de tercer grado lo ocupan los agentes de esas mismas acciones remotas, pero disfrazados de pacientes, sin duda porque de los elementos personales de conjugación los pacientes son siempre afijos, infijos los recipientes (en relación con los agentes) y los agentes siempre sufijos" (556 eta 708 orr.).

## AMAIERA

"Es evidente que el verbo vasco tienen sus estructuras propias, su esquema especial, distinto del de otras lenguas... Para aprender bien y fácil el Aditza no hay nada mejor que comprender y seguir su desarrollo natural y lógico. El verbo vasco tiene su método especial y fácil. Tiene su secreto. Este libro pretende descubrirlo a todo el amante del euskera, lengua tan antigua y bella como la misma Euskalerría y una las más antiguas y ricas del mundo" (Baztarrika'tar Isidor, "ADITZA", introducción).

Euskal aditza, eta, ondorenez, bizkaierazkoa eta gipuzkoerazkoa, illuna, naastua eta ikasgaitza deritzaioke bearbada irakurleren bati.

Ona zer diotsadan: ez dela orren naastua eta zailla, ala uste izaten eta esaten badute ere. Ez beinik-bein latera-izkuntzaren aditza bezain zailla: lau jokabide (cuatro conjugaciones), "voz activa", "voz pasiva" bakoitzean, gero "verbos deponentes", eta abar. Ez urrik emanda ere. Ezta gerkerazko aditza beste zailla: "voz activa", "voz media" eta "voz pasiva", eta abar. Ez gaztelanjazko aditza besteko ikasgaitza. Gogora ezazu, adibidez, "caber" aditzaren jokabide guztiz "arraroa", baita "verbo sustantivo" den "ser" aditzaren jokatze irregularrá, eta abar. Izkuntzalariek diotenez, "ser" aditz orretan zaarragoak izan ziren iru aditzen aztarnak omen daude. Eta beste gogoeta anitz egin ditzakegunak.

Pedo PUXANA, arabarrak





# KOINE BATEN BEARRA?

Mitxelena zanari bein baiño geyagotan entzun geniona: euskerak Koine baten bearra duala. Alexandron denboran elenera izkeldi mordozka batean zatitua zan eta danentzako elenera batu sortu zuden, koine edo Testamentu Berriko elenera esaten zayona.

Ellas'ek askatasuna lortu, erriak demotiki zeritzana mintzatzen zuan. Lardaskatu zamarra zala eta KATAVERASIS edo Txukundua sortu zuden, eta legezko izkuntza biurtu zuden. Baiña ori agintariak eta eliz-gizonak bakarrik mintzatzen zuden. Azkenik 1976 garren urtean erri-izkuntza edo demotiki dalakoa legezko izkuntza biurtu da, eta jakitunen kataverasis arrika bota dude.

Luxembourg'en ere azpalditik legezko izkuntza prantzesa izan da, ta lege guztia eta gobernu-erabakiak prantzesez egiten dira. Salerosketan eta ikastegietan alemanez aritzen dira. 1978 geroztik etxean mintzatzen duden lutzeburgistik deritzana, aleman izkelgietako bat, legezko izkuntza biurtu da, eta aurrel eskoletan orixe irakasten asi dira.

Ipar Euskalerrian ere navarro labourdin unifié dalako Koine bat sortu zuden, eta Euskalduna astekariaren bidez zabaldu ere bai. Idazle guztiak edo geyenak oso pozik dira. Eta Ego Euskalerrian ere Koine bat bear dugula ta ango idazle guztiak ete emengo geyenek ere napar-lapurtarr aren oso antzeko zerbait emen sartu navez ari dira. Baiña 40.000 euskaldunentzat egoki gertatu ornen dana, beste 560.000 euskaldunentzat egoki gertatzea eziña da.

Gogoratu Bonaparte'k ziona: "J'aduets très volontiers que les quatre dialectes littéraires soient beaucoup plus importants que les trois autres, et que parmi les premiers, il y en ait deux, le guipuzcoan et le labourdin, que l'on doit à juste titre regarder comme les représentants légitimes de Basque; le premier a Espagne et le second en France. S'il s'agissait de savoir lequel de ces deux dialectes doit être scientifiquement considéré comme le représentant du Basque sans prendre en considération la France ou l'Espagne, mais du Basque dans son ensemble, je croirais pouvoir prouver à la satisfaction des linguistes de l'Europe, que ce droit appartient au guipuzcoan".

Iparr euskerazko Koine dalakoa ñ,il eta bakarki arteko y'rik gabekoa da. Izan ere ñ ordez prantsezaren gn euskeraz nola erabilli? Axular ek ñ erabiltzen zuan, españarreri ikasita. Oienart'k ñ sartu nai edun zuan, baiña irartzerakoan ttantto oyek galdu egin ziran. Alaz guztiz ere Philothez ta Fablean ñ'z josjak dira. Berdin orain ia eun urte agertutako Maitena operan ere.

Beste arazoa H'rena dugu. Euskaltzaindia'k h'dun 360 inguru itzetatik ia guztiak Llande'ren iztegian h'rik gabe ageri ere ageri dira. Okerr ezpanago h'rik gabe agertzen eztan bakarra hartu da. Sekuñan h'rik entzuten ez tuden ots bati dagokion letra ori 360 itzetan sari bear dudela ikastea baiño entzuten duden Iparraldekoek ori beñ ere ez tudela idatzi bearr ikastea errezago da. Izan ere Euskaltzaindiak berberak orixe agindu alkarti ondoko h guztiakien khendu eta abar.

Orain emen beste arazo bat ere sortu digude: y letrarena. Euskeraz bakartiko errezkadarik ez tu onartzen. Iparraldean geyenetan h bat sarturik galerazten da: leiho, lehoin, gauherdi, Goyhetxe, lohia, gabon; egoaldean tarteko i y biurtu oi da eta u berriz b: naya, loya, gaba; leyo.

Baiña edun (>edukan >ukan) aditzetik det, dek/den/du ateratzea ezta egokia; bizkayerazko (daut>) got, (daduk dadun > dauk/daun >) dok/don (dadu>) dau egokiagoak dira; lapurtarrerazko eta benaparrerazko dut, duk/dun, du batasunerako askoz egokiagoak eta ezagunagoak.

Beste arazo batean, bizkayaretik ikasi eta onartu bearco genukena bada: gizon au (gizonau), gizon ori (gizonoi) gizon a (gizona = ille hornu). Orren aldean beste euskalkietan ua, ura, hura txit baldarrak dira.

Orain gaztelaniz Il'ren jatorrizko otsa ia galdu da; geyenak have, yuvis, gayo oguzten ditude. Euskeraz ere Pello ordeiz Peyo esaten asiak badira.

Baiña gaztelaniz Oyarzun, Aya, Zumaya idazten ditudelako, orain "batua" egiten dudenek Oiartzun, Aia, Zumaia idazten dude. Orren ondorena: euskaldunok Oddartzun, Adda, Zumadda oguzten ditugunok, idazkera orrek gaztelaniz bezela Oiartzun, Aia, Zumaia oguztera garamazkiala.

taka distirantez titilutzen da.

Erditan, eznebidea,  
argiherresta lüze eta zabal balde.

Honi arraheinki jarraikitzen ziren  
Konpostelarako sentoralzaleak,

hegoaldealat  
xüxen xüxena gidatzen zütüalako.

Ekijeikigialat  
sortzen da gorritarzün bat  
eta argizagia,

mendi g;beletik,  
laster agertzen da,  
biribil handi, gorri hau ere.

Zelüalat goiti doalarik,  
argi zurpail bilakatü aitzin,  
lüzaz egonen da gorri eta handi.

Odol kolore;  
itxes lazgarri zotal ote?

Lürrean, ülünaren gatik,  
hertürrik dago zure ikusmena,  
Bena zoin goxoa  
gaurko eztitarzüna!  
egüneko berotarzünetik landa,  
aide hozpil bat hedatzen da orotara.  
Ez düzü, gaü hoietan,  
senaren axolik,  
ez eta haren ondorioan:  
marranta, tzüntzürreko min edo eztül idor;  
hegoa xuriak  
minbideak aizatü dütü.  
Südür hegalak zabal,  
har dezakezü kozürrik gabeko hatsa.

Zonbatez haboro, gaur bezala,  
aideareki batean heltzen delarik  
belarren ürrina.  
Badakigü, nütenatürrik,  
sendotzeko eta pixkortzeko ahala badüe.  
Bena, gütiago dakigüna,  
ürrinak ere badütü ber indarrak.  
Ahürraren barnean beroxte eta  
Hüilant ziniro südürreala.  
Gaur aski zaizü  
aideak ekarten deizün  
belar ebakiaren ürrinaren gozatzea;  
gaüaren epeltarzünak  
indar are haboroxe emaiten deio.

Belarra sartürrik düan aüzoaren sorotik,  
azali bat bezala,  
gojti doa girgjen etengabeko krikria.  
Ulüntzearen hedadüra  
bazterretarat eran aitzin,  
hasi dira kantan,  
eta ez dira eküratüko,  
ortzondoak bere argi txirrintak  
erein bero lehentxe artino.  
Horjen sonü bardinen erdian,  
bide hegian den arrolla batetik,  
-ez daiteke erran zoinetarik,  
gañti batetara beha zirenean,  
entzüten bejtüzü bestetik-  
apo baten, edo batena beno haborozen  
klinklun argia.

Etxe baten okolütik,  
tzakür bat ari da txanpaz,  
heltübada oilateglala hüplantü nahi den  
haxeri maltzur baten  
ohiltü beharrez.

Hürrünago,  
Beste bat ari da ohüguz.

Malta beltzetik  
kahaka batek  
noiztenka entzünerazten dü bere oihü ürrakorra.  
Hüntz batek, hari ihardesteko bezala,  
lüzatzen dü bere uhuhu ozena.  
Bai tzakürraren ohügüak,  
bai kahaka eta хүntzen oihüek  
gure aitzineko herritarrer  
lazdüraikara bat sorrerazten zeien.  
Uste züen hil mezü bat züela ekarten.  
Nik gaur, gozatzen düt oroen boztarioa,  
bakoitxak, gaü eder horri бүрүз,  
bere botz eta sonü bereziaz,  
bena betio xüxenaz,  
kantore puxka bat aranatzten düalarik,  
ene beharrien sirasgarri.

Horier beha nindagolarik,  
zelütiko burrunba lüto batek,  
gain hartako ixiltarzüna haustez,  
peko herotsak ere itotzez,  
mozten dü ene xoraldia.  
Gora, bi argi gorrailek  
ñirñiratzen düe zerbaiten ondotik baljra bezala.  
Bultzazko hegazkin bat badoa,  
ekijeikigialat бүрүз lehiatüz,  
lürreko bizizaleez  
batere antsiatü gabe.

Düala arte bat gorri zen argizagiak  
ortzian bide egin dü,  
kolorez aldatzez,  
xuri dago.

Han, orai, orotarar hedatzen dira  
odeiak, xuri hurak ere,  
prefosta, argizagiak bere ber kolorez tintatürik.  
Zer edertarzüna parpiñatzen düen!  
Ile iaurri batzü bezala daude,  
lehenago ikusten zirenak bezalakoak,  
üküzi ondoan, hedagian koteatzera,  
txilintxau ezarriak.  
Horien gibeletik,  
kukuxkan hasten da argizagia,  
batere gorde gabe, haatik,  
odeiak xehe eta argal beitira.

Hegazkinaren bi argi бүзтанек  
hürünealat bat egiten düe,  
izar ebiltzale balde,  
azkenekoz itotzen den burrunbak  
üzten naialarik  
ene üngürüko adixkideen kantoreen entzütera.

# SONG, TXINAKO MANDARINA

Arrinda Anes

Nel Tibet, sopra le porte  
dalle lamaserie  
si puo leggere  
la seguente iscrizione:  
"Mille monaci, mille religioni".

(T. Lobsang Rampa)

Kamiloren etxea itsas-aldeko mendixka batean dago kresalari begira. Ifaf-aizeak, Norteak, Mendabalak, Egoiak, Naparreagoak... orok jotzen dute aldamen guztietatik.

Kamilo, bere gaztaroan, Ameriketatik ibillia zan, Panpas deritzan zelai zabalean, gautxoekin aberezaizntzan. Orregaitik edo, bere etxe xaarrari "Buenos Aires" ipiñi zion izen.

Aspalditxo onetan, Mari-zintzo eta bera, bajak, aterkia erabili oi dute ogeratzerakoan. Bai ba, istillak, etxe-inguruan bakarrik ez, etxe osoan agertzen dira, euri-zaparrada bat egiten duen bakoitzeko.

Gaur Deban, urtearen lenengo larunbatean, "Ferja de Locos" deritzan azoka berezia ospatzen degu. Kamilok astoa erosi du galanta, astarra. Anton Burusoillek saldu dio merke. Kamilok ez dakizergaitik aini merke; baiña nik esango dizuet zergaitia: astar mando ori berekoia eta buru-gogorra da esan ain beste, eta, ezetz esaten badu, ez du iñork bere artatik mogituko.

Ara zer gertatu zitzaion bein batez Antoneri: Errotako zubitik pasa beargaria eioteko; baiña, Periko Fortunak ezetz ez, ez zala pasako. Anton Burusoillek, baietz, pasa bearko zuela... Eztabaida luzea. Errotaria, beste aldetik bieibegijra, parrez errementa bear.

—A zer asto pare! Orrela utzi bear al diok...?

—Au aiña banauk!

—Asto baten menda... Ai Anton, Anton, ireak egin dik.

—Nereak egin ? Ez orixe! Oraintxe bertan ikusiko dek!

Besterik gabe astoaren tripa-barrean bere lepoa sartu eta, sorbaldan astoa duelarik, errotara pasa zan...

—Ara, Fortunato, neu txapeldun!

Errotariak erriko tabernetan zabaldu zuen berria eta, arrezkero, tabernatetik Anton agertzen zenerako "Amen gure kanpeoia"ka asiko ziran bezero guztiak. Asieran danen aurka ekiten zion: "Joriok adarra amamari". Baiña, orrenbestez, festa sutzea besterik ez zuen lortzen eta goiz-alde batean auxe erabaki zuen: Zoruen Ferian astoa saltzea. Prezioa merke ipiñi ezkeroz, iñuxenteren bat agertuko zan asto zaar ura eroatera. Alaxe gertatu zan gerta ere; Kamilok alako asto-puska ikusi zuenean, biotza mindu zitzaion.

—Zenbat?

—Berreun ogerleko.

—Eta, Bizkaian ogerlekoak zenbat errial ditu?

—Gizona, gizona "ogerlekoa" ogei errialekoa duk. Peseta batek lau errial, bost pesetak ogei errial. Bost peseta duroa duk. "Ogerlekoa" duroa duk. Nungo munduan bizia aiz i, mutil?

—Beraz, berreun ogerleko, berreun duro. Panpasetatik etorria naiz eta an durorik ez genduan erabiltzen, ogerlekorik gutxiago oraindik...

—Dana dala eta dena den, berreun ogerlekok milla peseta osatzen dute. Milla peseta aragitarako ere balio dizkik onek...

Lenengo-ta-bat Kamilok agora begiratu zion astarrari, ortzak nolakoak ote zitun jakiteko. Ondoren buztana jaso ipur-zuloa ikusteko. Garbi-garbi ez zekien berak zertarako jaso bear zitzaion astoari buztana; baiña, ferjetan orrelaxe egiten ijitoak, askotan ikusi zitun, ganaduren bat erosterakoan. Bere buruari inportantzi apur bat eman nai, gero tratoan ekiteko. Bere burua zuritu nai, alegia, Anton Burusoillaren aurrean.

—Milla peseta askotxo da; bosteun emango dizkizut oraintxe bertan. Eskura eman ere.

—Txo, txo (ama bizkatarra izanik, Bizkaiko esaera asko erabilli oi zitun Antonek bere lenguajejan) ez zera lotzaten ori esaterekin? Aragi utsetan badi-tu amar arrua gutxienez.

—Aragitan? Ezurretan esan naiko dezu. Ezurrak ugari asto onek, ipur-zuloa zikiña eta ortzak esterean pasata bezala...

—Ipur-zuloa zikiña? Eta, zer nai duk (ika asi zitzaion berriro ustekabejan) egunero paperakin garbitzea kaka egiten duen bakoitzeko, ala...?

—Gaiñera, ortzak ere zatarrak.

—Eta Colgatekin garbitzea nai al duk goiz eta arratsalde...? I zoro bat aiz.

—Bosteun eskura eta ez ditzagun itzak alperrik galdu.

—Bosteun? Zoruen Ferian gaudelako...? Gutxienez bederatzireun bear dira.

—Ez, ez. Ori askotxo dek. Eun geiago ipiñiko dizkijat.

—Seireun peseta narratx orrelako astar ederragatik...! Ez zeudek danak Santaguedako zoro-etxean. Gutxienez zortzireun...

—Nere azken-itza, zazpireun eta "goazen pakean" apaizak elizan esaten duen antzera.

—Joanari eu nai badok (bizkaitarra berriro) apaizarekin, baiña azken-itza neurea bear dik: zazpireun t'erdi. Konprome ez ba aiz, artu astoa eta etxera noa berriro.

Kamilok bere kolkorako: "berreun eta berrogeita amar kendu zizkioat".

—Bale da. Tok bostekoa!

Alkarri eskua eman eta biak alkarrekin tratoa ospatzera Buruzurineko tabernara. An iji-ta-aja, txurrut emendik eta mokautxo bat artatik, txorixoa dala, buskantzak direla, tripakiak batetik, txuletak bestetik, gautxoen kontuak andik, astoaren goraltzak emendik... Aizkenerako astoaren irabaziak eta Kamilon merkaldiak, guztiak Buruzurineko kaxara. Balantzaka eta alkarri lepotik elduta irten zuten kalera. Antonek dirutxuak eta Kamilok astarra.

Pozik zijoan Kamilo etxera bidean; bai ba, asto arrek ogei erralde baiño geiago zitun eta amar pesetan kiloa salduta ere. Prezio orretan pozik erosiko zioin arakiñak.

—Bai, orixe egingo det: urte batzuek lanean erabilli ondoren, txorixotako salduko det.

Bazekien zeinek egiten zitun lukaika ederrak astoen aragiakin.

— Debekatua ornen dago ori egitea. Nik uste ez litzakela orrelakorik debeka bear; gal onakin edozeiñek egin dezake produto on bat; txarrakin ona egitea, ori bai dala benetako doia, arranopola! Orrelako gizonak ministraia izatea merezi du, ekonomi-ministraia, merkataritzakoa ala industriakoa... Edozer klasekoa. Oiek dituk gizonak, oiek. Urdai-azpikoakin edozeiñek egin dezake lukainka ederrik; baiña, asto zaarren aragiakin lukainka onak egitea, orretzek zeukak benetako meritua, orretzek!...

Pentsamentu oietan doala, pasa du Polborako tunela etxera bidean. Erdi-erditik zijoazen astoa eta nagusia bide zabal orretan. Une aretan orra or nun agertzen diran Kamilon bidetik bi motorista guardia-zibilak. Bien artean Kamilo eta bere astoa arturik, multa-agiria aterata, onela diotza aietako batek:

— Dónde va usted, señor?

— Yo?

— Sí, usted y su burro por la mitad de la carretera...

— Vamos a "Buenos Aires".

— A Buenos Aires, señor?

Adarra jotzen asi zirala, konturatu zan Kamilo eta onela eraso zien:

— Sí, señor, a Buenos Aires. Allí vivo yo que he sido pampero y allí llevo a mi burro por este camino.

Multa-agiria gorde eta eskubiko beatzakin bere buruan jira-buelta bat emanez, badoaz aurrera algaraz.

— Bai, bai, parre egizazute, nai badezute; baiña, ziri ederra sartu dizuet ustekabeen. Ja, ja, jai...! Zuek ez dakizute nere etxearen izenik. Tok.

Etxera orduko konturatu zan Kamilo asto ura oso berekoia zala. Lenengo egunetik makilka asi bear.

— Asto madarikatu ori, segizak aurrera ikuilurarte!

— Au baño korta obeagoetan oituta nago ni, zuk zer usten dezu?

— Zer? izketan ere badakik!

— I bezelako iñuzuekin ikasi nuan berbetan, astoka mundu osoari ari zera-tenoekin.. Au astakeria! Ura astakeria!

— Gizonak astakeriak egiten baditu, zer nai dek esatea!

— Oiek "gizonkeriak" djtuzu eta ez "astokeriak"; guk geuk sentzu ohea agertzen degu zuek gizonok baiño.

— Arranepola! Beste orrenbeste ez diat sekulan aitu... Astoak, beraz, gu gaituk...?

— Ez, astoak geu gera eta zuek gizontxoak zerazte; guek baiño belarri txikiagoak eta buruak eskasagoak eta ni txerri-korta orretan ez naiz sartuko, aurretik apur bat txunkuntzen ez badezu.

— Ezetz? Bai orixe, sartu bearko!

Astoak aurreko bi anak lurrean tinko sendotu zitun eta alperrik ibilli zan Kamilo astoari atzetik bultzaka, ikuiluan indarrez sartu nairik. Azkenik, gorozti-makilla eskuan artu eta xenperrenak ematen asi zitzaion Periko Fortunari.

— Indarkeria dezute nagusi zuek gizontxoak, indarkeria. Eta indarkeriz zer irabasten dezute? Abereak eurak baiño buru eskasagoa agertzea; besterik, ez. Indarkeriak indarkeria sortzen du etengabeko abjadan, neurririk gabe, azkenik gabe... Oianetan ez dago zuen aiñako piztirik. Aiek indarra, jana billatzeko, erabiltzen dute; zuek, berriz, zertarako? Besteak zuen mende zapalduta ikusteko.

Kamilo zegoen ao-zabalik astoari begira. Ijito euskalduna etorri zitzaion burura, astoa saltzerakoan, paioari onela esaten: Begira, begira; ez egon albo-



ra begira... Eta, asto itsua saldu zion paioari. Gero protestan etorri ziltzalón esanez: Asto itsua saldu didazu iruzurrez. Ez da iruzurra. Nik garbi asko esan nizun: begira, begira, ez egon albora begira eta zuk ez diozu begirik bagiratu... Au, asto au-zion bere kasa-ijitoren batek erekutsitakoa izango degu; Antonek, ordea, ez dit ezertxo ere adierazi. Onela eraso zion Perikori:

— Nungo ijitoen eskolakoa aiz i?

— Ijitoak Ejitotik badatoz, ez zabilta ain urrun ere...

— Ungriatik, motel. Ez al dakik orj ere?

— Ungriatik, Ejitotik.. I nundik agertu aiz, ba?

— Urrunagotik. Eguzkiaren sorkaldetik. Reinkarnazioaren berri ez al dizu iñork sekulan eman?

— Zer arraio da reinkarnazioa?

— Mundu onetan egindako okerrak zunzendu aal izateko, beste noriki edo zerki batean agertzen gera birjaiota, il da gero. Birjaiotze ori da reinkarnazioa.

— Zer zorakeri dek ori?

— Ez da zorakeria. Tibeteko Lama nagusia, Espainiako umetxo batean birjaio da: ura il zan une berean jaio zan umea. Lau urtez ibilli dira aur orren billa Tibeteko Erljio-agintariak.

— Tibeta, jo zak tronpeta. Zer arraio ari aiz?

— Bizitza bateko okerrak, ondorengo beste bizitza batean ordaindu bear dira aizkenerarte; orduan izango da betiko atsedeen erabetekoa.

Kamilo zegoen amesetan, entzuten zuena sinistu eziñik.

— Beno, beno, ni Buruzurinean neurritik pasa nauk eta eztabaida auek ameskeri utsak dituk.

— Bai, bai, ameskeri ederra. Zu eta Anton Burusoil nundik agertu ote zerate? Bjkote polita. Zuen aurreko bizitza aretan, zer ote ziñeten zuek?

— Ez gera berdiñak animalia eta gizona, txotxo.

— Aizu, Kamilo, animalitik sortu zan gizona eta biak egin zitun Jainkoak; batetik bestera pasatzea gauza erreza da.

— Ni asto biurtu!

— Zailagorik ere egin litzake. Bat iltzen danean... Baiña zer da iltzea eta jaiotzea? Errealitate Aundian bat iltzen danean, Lurrean artzen du bizia eta Lurrean iltzen danean, berriz, Errealitate Aundian biernetzen da. Ez dago Erioztarik, Birjaiotzearen nekea baizik. Erioztaren neke-naigabea, Jaiotzaren neke-naigabea da.

Kamilori garunak jira-biraka asi zitzaizkion kaska-ezurrean.

— Tabernan eraten aritu gera, baiña ainbeste?!

— Ez, Kamilo, ez zaude amesetan. Animak dabilten mundua, Errealitate Aundia, era guztietako bizidunez beterik dago: abereak eta gizonak naasian, biak bait dira Izakien garaia. Ni ere asto biurturik nabil; orain milla urte, ordea, Song Mandarina nintzan Txinan. Lo artu nuen betirako eta nere gorpua ez zuen ezertako balio. Anima, berriz, argi urdinskea, Zillarrezko Galartsuari lotuta zegoena, askatzen joanik, aizkenerako libre gertatu zan eta ibillearen ibilliz, gela txiki batera jo zuen. Bertan eseri zan eta aurrez-aurre zeukan pareta desagertu egin zan eta, bere orde, animaren bizitzako gertaera guztiak argitu ziran, Akasharen Liburuan idatzita daudenak. Egiñak eta utsak. Asmo onak betetzeke, eta txarrak beteta, gertakizunik xeenak eta okerkeririk txikienak, guztiak zeuden an begien aurrean... Andik, egan, gela aundi batera; Animaren Munduko Izakiek an zeuden bere zai. Ez zuen iñork salatu bearrik; berberak eman zien okerkeri guztien berri eta betegabe utzitako asmo on guztiena ere bai...

—Zorakeri multsoa esaten ari aiz.

—Zergaitik zorakeri...? Beste Aldeko Animen Munduko gertakizunen berri jakintsuek bakarrik dakite...

—Astoak ere bai.

—Gogora zazu nundik natorren. Nere historiaren berri ematen ari nazaizu. Anima an zegoen epai-laguntzailleen mende. Benetako epaillerik ez zan, laguntzaille eta konsejuemailleak baizik; norbera da bere buruaren epaille. Ajek arretaz aztertu ziztuzten bizitza berrirako bearako zitun doa; eta birtuteak. Gero bere gorpuaren egoera ikustera joango zan anima eta ondoren izango zuen deskantsua (urte batzuek, eunka urteak) eta arrezkero laguntza emango zioten, kondiziorik onenak billatzen, bizi berri egoki baterako.

—Eta, gero zer inluxentekeri dator?

—Song Mandarinaren Anima Lurrera biurtu zan bere gorpua ikustera eta ondoren, deskantsurako presto zegoen Anima, Beste Aldeko Lurrera itzuli zan.

—Zertara?

—Etorkizuna aztertzer a eta b;en bitartean, ordu artarako, denbora eta era egokiak gertatzen ziranerako, bera Anima ori prestatzera.

—Ez dago ain gaizki, baiña Eriotza Lur onetako nekeen azkena besterik ez bada, zergaitik diogu ainbeste bildur?

—Beste Munduko pozak bakarrik gogoratuko baginduz, askok ez genduke Emengo nekea jasoko eta orregaitik sartzen da Eriotzaren Bildurra.

—Zertarako bildurra? (Kamilo panpero eta baserritarra izanik, badu bere filosofi naturala ere; Perikogandik jasotako kutsadura ez bada...).

—Ezezaguna dan Orok sortzen digu bildurra. Bildurrak, ordea, adore ematen digu, alperkeriaren mendean erortzeko arriskua agertzen danean...

—Ire itzetan zoroikeri asko zegok eta orain galdera bat: zertan biurtu induen Txinako Mandarinara izan ondoren?

—Mandarina n;intzala okerker; asko egin nituen arrokeriz eta nere okerkeri ori makurtzeko, zaldi baten gorputzen sortu ninduen; baiña, nere aurreko bizitzari eta egoerari begirunea izanik, Frantziako Erregearen zaldi-kortan jaio arazi ninduen.

—Erregearen ikuillutik ijituen eskuetara...?

—Zure eskuetan baiño obe. Ni Frantziako erregearen korta ederrean bizi nintzan lajsterketarako zaldi. Apaiña oso eta liraiña. Arroputsa. Bestelako lane-tan ari z;iren zaldiei parre egiten eta iseka. Mando eta astoei, zer esanik ez. Neretzako lana zan urria eta mantenua ederra. Lana neurrian, disgusto gutxi eta mokautxo gozoak sarri-sarri. Beti garbi eta atsedenean. Noiz-beinka lasterketatxoren bat. Erriz-erri Erregearen Kortearekin batera.

—Ez !tzan gaizki biz; alazankoa!

—Bai, aberea izateko, nai baiño obeto. Nere zoritxarra Doniane Loitzunen gertatu zitzaidan. Eunka urte dira; baiña, alaz ere malkoak irtetzen zaizkit begietatik bizitza ura gogoratzean... Laisterketa galdu nuan Pirineetako zaldipottoka baten aurrean. Korteak alde egin zuanean, bertan utzi ninduen kale-garbigetarako. Zikin-gurdiari tiraka egun osoan, egunsentitik illunabarreraiño: jana urri eta lana ugari. Munduaren aldakaitza! Nere itxurari begira, onela ekin zion bersolariak:

"Ona sei bertso kale  
garbitzailleari,  
señaz beren izena  
dan Jose Mari  
Erreza lezazkike  
iru Avemari  
indarra etortzeko  
zaldi gaixoari.  
Animali ori  
erruki zait neri  
falta du ugari  
egoteko lodi,  
kartoiakin egña  
dala dirudi".

Nerekin lotzatu zan nere nagusia eta arakiñari saldu nindun.

—Txorixotarako? (Nere burutasunak asma ote ditu morroi onek?).

— Bai, lukainka ederrak egin zitun, itxuraz beintzat. Badakizu, pipar-gorri ugari eman ezkerero...

— Pipar-gorriak beste akatsak ezaltzen ditu. Errerz saldu al zitun asto-lukaikak?

— Aiek zaldi-lukaikak ziran; baiña, zaldi arek aragi gutxi eta ez ziran ain onak ere gertatu.

— Alaz ere, salduko zituzten.

— Doniane Loitzunetik Terranobara zijoazen ontziek janari eta edari asko bear zazpi illabete osoak itsasoan ibiltzeko. Lukaika aiek merkeak eta itxura onekoak ziran; beste aldetik, berriz, arrantzaleak arraina ugari izaten dute eta okelea nai. Urdaia, sesiña, koipea, txerrikoa eta, al zuenak, urdai-azpikoa. Onek eta zaldi-lukaikak ez dute prezio berdiña, ezta ontzien aberastasunak ere. Batzuek aundiak ziran bosteun eta geiago toneladakoak, bale-arrantzaraao. Beste batzuek eun tonelada eskas izaten zituzten; auek bakailautarako. Era orretako pinaza batera saldu ninduen. Barku artako 16 urteko mukizu batek onela idatzi zuen bere etxera Terranobatik: Emen nago ni egunero patas de kuto eta karne de mono janez; igandetan, berriz, asto-lukaikak. Nere lotzakizuna orrelakoak jakinda...

Kamilo zorabioak artuta zegoen astoari ao-zabalik begira. Amesak ote ziran ala pattarraren lanak? Zorutzen asita ote zegoen? Astoaren itz-jario arrek ez zion onik egiten eta ebagitzea erabaki zuen:

— Itzeetatik naikoa dek.

— Naikoa? Ez oraindik. Nere garai artako pekatuak "Buenos Aires"en ordaindu bear Kamiloren mendean, aurretik Anton Burusoilaren eskutik pasata gero. Bikote ederra! Kirten galantak! Baiña, zuk ni ez nauzu indarkeriz menperatuko. Biok zerazte berdiñak; burugogorrek eta itsuak. Sudur-aurrean dezutena ere ikusten ez.

— Ago ixilik, madarikatu ori! Bestela ez zaik bizkarrean egurrik paltako.

— Ni ez nauzu makilka ixilduko.

— Ezetz?

Nagusiak, eskuetan makilla bat artu eta, nun ematen zion begiratzeke, belerrietan jotzen asi zitzaion. Astoak bere aldetik, egurra geldi arazteko, ortzakin besotik eldu zion. Baita apurtu ere. Ez zion miñik eragin nai; baiña, oke-

rra orrelaxe gertatu zan. Kamilok, bere amorru artan, t̄ro bateko eskopeta zaarra artu eta, begien artean, basurdetarako zeukan kartutxoa uztu zion. Astoak errukiz begiratu arren, nagusiak itsu-aldi artan ez zuan ezertxo ere ikusten, bere amorrua baretzea besterik. Astoa lurrean eta ixilik ikustean, orduantxe lasaitu ziran Kamiloren barrenak.

Astoa erositako une berean artutako asmoa, orain beteko zuen uste baiño lenago. Inguruko erri batean txorixogile famatua bizi zan eta mezua bota zion, bazuala astarra ederra, bere lan aietarako egokia eta etortzeko, alba aurretik, bere baserriaren oinpean zegoen bide zabalera. Istr̄puz akabatu zitzaiola eta kezkarik ez izateko.

Bigaramonean an zeukan Kamilok astoa lau zatitan, kamiño baztarrean oso kurioso ipiñita. Eraman zuten; baita lukaika ederrak egin ere. Andik laister, Pasaian bakailautarako zebillen ontzi baten nagusiak lukaika-sajl osoa erosi zuen. Berrito ere gure astarra Terranobarako gertatu zan, beragoko mailan: zalditik astora. Bere aurreko bizitzen okerkeriak zuzentzeko astirik ez zion Kamilok eman eta berriro reinkarnaziora jo bearke zuen. Bere aragi guztiak Groenlandiako itsasoetan zielarik, nun biziberrituko ote zan berriro...

Indarkerian bizi izanik (indarkeria egin eta indarkeria jaso, alegia), indarkeria lege duten piztien artean biziberr̄itu ornem zan, Groenlandiako artzazuri-kuma batean. Suerte oberik izanem ote zuen Eskimalen artean? Gerora jakin genduen artzazuri ederra egiñik bizi zala izotz-arteke errege. Zori txarrez, ordea, tranpa batean erori eta katigu berriro giza-indarkeriaren mende. Aurretik Txinako Mandarina izateak ez zion batere onurarik ekarri ondorengo bizi-berritzeetarako.

Eskimaleak lau urdaiazpiko egin zituzten bere gorpuakin eta negurako an zeuzkaten izotzetan gorder̄ik. Baiña (beti izaten da baiñaren bat) Son Mandarinak, bere Besteko Errealitate Munduan, beti topo egiten du euskaldunekin; barriro ere mutiko gazte arrantzalea esku artean. Oraingoan, getariarra. Bakailautan joanik zan Kanada ingumarietara eta, indioekin zeuzkaten ar-emanetan, neskato begi-beltz batekin maite mindu zan eta udeazkenaldiko gau batean, orra izaki berri bat sortu, erdizka euskaldun, erdizka eskimal, tximia beltza, azala beltzarana eta begiak urdin-urdiñak, Udara baiño lenen jaio zan ume-txoa. Ezkondu arazi zituzten biak udazkena orduko. Eztaiak egin zituzten alakoak eta ez nolanaikoak. Sei sagardo barrika eskeiñi zitun kapitanak barruan zeukenetatik eta eskimalek, beuren aldetik, artzuri gazte baten urdaiazpikoak. Son Mandarina, Periko Fortuna, euskaldunen tripetara berriro. Nora bidalduko ote dute oraingoan? Bear bada, onezkero deskantsua egokituko zitzaion betirako, Akhasa Liburuan ala idatzita balego.

Or̄i, ordea, susmo bat besterik ez zan gertatu; indarkeriaren zurrunbilloan sartuta zegoalarik, Ekialdera bota zuten orain ere aizken probarako Azken Gerra Nagusian partaide izateko, Japongo Errege jainkoaren alde bizia eman zezan. Orra nun Periko Fortuna kamikaze biurtu. Eskeintza osoak, deskantsu oso merezi.

Arrinda'tar Anes

# ERRITASUNAK EZ DU PAPEREN BEARRIK

Ez dira atzo goizekoak  
Euzkadi'ren sustraiak Edestian

"Iragana biotzez dut maite.  
Tradizionalistak ez dute maite.  
Auek igaroa oraiñaldi egin  
bait-digute".

(Ortega y Gasset'ek)

Gure euskal erritasunaren kontzientzia eukitzeak purrustaka jarri ta asarretu egiten ditu askotxo, España artifiziala-sakrosantu ori usteltzen asita puskatzeko zorjan ikusten bait-dite oiek. Gure euskal naziotasuna ukatuz, "argumentuz" - edo nai beste irain jaurtitzen digute gure aurka. "Atzerakoiak gerala, odolak ez baiño Edestjak ornen du-ta nazioa egiten". Eta beste onelako ainbat kaikukeri. España Edestiaren zati ukaeziña ornen gerala-ta euskaldunok.

Adimena kamustuz eta askatasun-lillura ameskorrez aletzen, naturaltasun edo egintza naturalaren aurka ari ornen gera.

Zillegi bekit galdetzea:

Kanpotiko eragiñik gabeko berez datorrena (zu ta biok jaiotzea, alkarren arteko taldea, senaz beteriko erri-nazio baten sortzea) zer da? Nun agertzen du berezko dan onek atzerakoitasuna naiz aurerakoitasuna? Iñun ez. Berez datorreana ez da atzerakoi ez-ta aurrerakoi. Ez bata ez bestea. Aipatu ditugun aoiak (jaiotzeak, erri sortzeak e.a.) danak egintzak dira, naturalak dira, ez besterik.

Ni ta nere tankeratsukoekin, abendaz, bizitez ta izkuntzaz antzakotsu diranekin talde berezi bat osatzen dugu; ta onek (talde aundi ta egituratuak, alegia) areagotuz, erria du eratzen. Euzkadi beraz, ez da politikari-eskuz mamitua izan, ez bait-da argizagi bigun modura giza-esku trabetsuz gorpuztua. Euskaldunok batidanik gerana gera, geran bezelakoak, besteengandik bereiz, gure birtute, akats, axaleko ta barneko bereizgarriekin eta gaiñerantzeko gai ta abarrekin. Besteak, beste alkarrekiko talde edo erria eratzen dute: nazioa eta berarekin erritasun edo naziotasuna.

Gaurko egunean, XXI'gn. gizamende-atarjan, danerako eta munduan ibiltzeko, naziotasunak tinkatzen ornen du norbakoitzaren kondizioa. Eta zein da gure naziotasuna?

Begira. Bein batean, Madril'en nintzan. Aulki batean exerita. Txapela buruan. Eta ustegabea, mikrofonoz ornitua zetorren 30 urtetsuko izparkar; bat, ez dak; zein irratirako, urbidu zitzaidan galdetuz:

— Euskalduna? (erderaz ari zan, jakiña!)

— Bai. Euskadi'n jaioa, euskalduna jatorriz, izatez eta sentimenez.

—Eta zure naziotasuna? Españiarra noski, euskaldunak españiar baitira. (Dana esaterik ete emen idazterik ez dago, laburbilduz ari naiz-ta).

—Orain españiar naziotasuna daukat. Ala laterritasuna esan bear ote dut? (Nere "orain" orrek oso arrigarri irudituz, errepika zidan).

—Zer esan nai didazu "orain" orrekin? Agian (mintzo isekariz) Euzkadi askatzean, españiar naziotasunari uko egingo diozula?

—Nik esan nai dizudana da, atzoxe arte ez naizela españiarra izan. Urtetan venezualatarra izan naizelako, nortasun agiriz eta igarobidez. Onek zera esan nai du, paperetarako ain garrantzizkoa zajgun naziotasunaren kondizioak ez duala egiazkorik ezer adierazten, "adabaki" utsa dala, puskakor eta aldokarra.

Nere euskaldun izatea ez dago aldatzerik. Laterriz-laterri nabillelarik, arro arro daramat nere euskaldun kondizioa. Andjk etorrira emen bizitzeko, galdu egin nuan venezuelatar naziotasuna. Ikusten duzunez paperezko utsa da naziotasuna. Oso errez galdu diteke edo-ta bestebat irabazi.

Norbakoitzaren izatezkoa ez da iñoiz galtzen, ezago apurtzen. Eta ni beti jzango natzaizu euskaldun.

Edestiak zer dio?

Noiztik dugu baliozarri Edestia? Askotxo dira, Ebro'tik bekoaldean batez ere, Edestia komeni zajen orrialdetik artzen dutenak. Atsegiña ez dutena baliozarritzat jotzen ez dutenak. Eta Edestia ongienik zaienean bukatzen dutenak.

Setakeriz beti bere artan dirautenak fosilizatuak daude, oldozkun bakar batean petralki setartutakoa arri-jitezkoa biur bait-diteke, buruan arri biurketak ez bait-du gauzakietan antzo gjzaldien laguntzarik.

Bosteun urte bete omen dira españiar estadia "batu" zanetik (?). Euskaldunok zer egingo ote dugu aurretiko gizaldi-mordo orrekin? Au ala dalarik, mende luzeak bizkarrean daramazkigunok, amatzat (edo-ta aitatzat) artuko ote dugu gu baiño gazteago dan ori?

Politikarien eskuetan utzi bear ote dugu konponketa itxillutsu au?

Politikariak bi mailletan eraikitzen ari zaizkigu Europa. Azpigarritzat, naturala dana, erria. Esaneko ta ixilik egotera beartua. ta gaiñetik artifizialki ezarritako maillan, Estaduak. Auek dira egitura berrian nagusi, azpiko txiki ta indar urriko dan guztien (izkuntzak, kulturak, e.a.) zanpatzailleak.

Iñoiz atzera egingo? Ekonomjari-eta begira eraikitzen ari zaigu Europña. Eta Erri txikikuoi "itz, arren" etengabe eskaera egiñagatik ez digute gure abots larritua munduari entzunerazteko itzik ematen. Noiz arte?

Egaña'tar Gotzon

# LENGO ETA ORAINGO KEZKAK ZELAN DUA BIZKAEREA?

[1985 urtean, "Itxastarrak" elebarria (nobela) kaleratu nebanean Erkiaga'tar Eusebio idazle eta euskaltzale amorratuak, kritika antzera onelako lan au idatzi eban:

Ona emen liburu barrj bat. Au esaten ez da gauza andia.

Are geiago. Euskal liburu barrj ori bizkaiko berbakeraz argitaldu dala agiri jartea, meritu berezia.

Meritu berezia, gauzearen egoera, oitzat artzen badogu.

Izan be, premiñazko dogu une onetan, oraingo irakasle batek erakutsi dauan laneko estadistika edo dalakoaren komentarijoa egitea.

"Euskal kulturaren zapalketa, 1956-1981. Elkar-liburuxka". Or Txillardegik, SIADECOREn 1975 g.urteko zifrak darabiltzen: au da, orain AMAR urtekoak. Begira: Euskalerrian 2.784.320 biztanle ziran. Oneetarik euskera ekienak —ez jakin erabiltzen dabeenak— 623.301 lagun. Beraz %27,7: Euneko 23 eskas.

Liburu orretan SIADECOREn inkestako batek, arean M. Ugaldek diño: "es la población vasco parlante la que padece una mayor marginación".

Eta guk, orren buztantzat zerau geitu giñei: Oraingo aldian, euskal alorrean, idatzian eta Telebistakoan, senjde txiro orren senitarteko mar-gi-na-tu-a bizkaieria da.

Lerro au idatzi nik, eta biaramonean, eguneroko prentsan, Karmele Errotatxek jtzaldi baten bizkai dialektorearen egoereaz "una seria reflexión" egin bear dala esan eban. Atzo bertan, maiatzaren 7-an, "Deia"n Adolfo Arejitaren artikululu mamintsu eta luzea agertu izan da, gure euskalki onen alde.

Orain eun urte, gure Erri onen barruan, euskera ekjenak %54 ei ziran. Orain, len esan dogunez, %23 murriz.

Ona emen Txillardegiren kuadru bat, orain amar urtekoa. Euskaldunak eskualdeko dakarz beste toki baten, baiña kuadru au, berba zelan egiten dauanari adi dagoana da. Au da, Euskera mintzatuari dagokiona.

Bizkaieraz berba	%37,7
Gipuzkeraz berba	%37,6
Nafarroako euskalkiz	%9,7
Baxenabarrekoz	%8,8
Lapurderaz	%4,3
Zuberoeraz	%1,9
Beraz, ona	%100

Ondorioa: orain amar urte, bizkaieraz ziarduenak, 11 lagunetik lau ziran. Gomutatu daigun Deba, Elgoibar, Eibar, Plaentxi, Bergara, Oñati eta Arrasate inguruak, eta Arabako Aramaio be, izatez azken mendeetan bizkai euskalkiak dirala.

Txillardegiren berbak djtugu: "Euskara Batua erdialdeko iru Euskalki nagu-

sien arauerara erabaki da. Estadistikak erakutsi dutenez, bestalde %75-ek baino geiago onartzen du Euskaltzaindiak proposatu duen Euskara Batua. Opoziziorik andiena zaar artean dago".

Orraitio, estatistikak zeinek egin ditu?

Dana dala, beste norbaitzuen esana dala eta irakurri doguna da mingarriena. "Bizkaiera ori ondatzeaz ez da zertaz kezka jarri... orren ordeko bezela Euskara Batua geratzen baldin bada".

Ai, ai, ai... eta baldin ez bada?

Baina, berbalapiko orreri zein Aseguruk erantzungo deutse, kalean galtzen dan euskerearen orde euskeraz beste berbakera modu bat sendo, indartsu ta bizi geratu daitekena? Zein aseguruk, zein jakitunek edo sasijakitunek? Amaikatik lau euskaldun galtzen badira, kaleko meaztute ori, utsune ori, lorrin ori, zelan konpontzeko?

Kalean galtzen dan euskerea eskolatik, ikastolatik, euskaltegitik, Unibertsidadetik indartuko dalakoan?

Or dogu Irlandako erakuspen negargarria.

Askatasuna mende onetan lortu dauan erri orrek izkeran galdu egin dau. Liburu eta eskolan ikasi arren, ez dabe kalean, gizartean ez artuemonetan erabilten. Ingeles parra parra, Eta modu orretan, orri... ba doa. Latiña joan zan antzean.

Ukatu ezina dogu Euskal Telebistan lan itzala ta txalogarria egin izan dabee-na. Baiña... bizkaieriak, gure berbakereak ez dau an tokirik. Errime gortu naiz, orraiti, zuok zoririk izaten ete dozue bizkai izkerearen modu doinutsu eta soinutasunik entzuteko? Beti bat, monotono, idor samar, kukuaren kanta, golden sagarraren bardintasuna aoran, or belarrian.

AMAIKATIK LAU euskaldun galtzen ba dira, zelako anemiak ez dau joko euskera osoa? Barriro, labur:

Bizkai berbakerez	%37,7
Giputz kutsuz	%37,6
Beste guztietara	%24,7
	% 100

Bizkaieria gal dadinean —kalean be urterik urtera galduz galduz doa, ez gaitez kanterak izan, umeak eta gaztetxuak euskaldun urietan an frantsez, emen gaztelaniaz diardue-ta—, gure euskalki au gal dadinean, Euskeraren mendebaldeko mugea Zumaia, Azkoiti, Azpeti, Zegama, Segura... eta ortatik sartalderuntz... dena gure Enkarterri bezala?

Giputzei mendeen mendetan zeinek gorde ta zaindu deutse mendebaldeko saietsa Bizkaiak eta bizkaieriak baino?

Beste oar bat, orraitio. Mintzaira mugaz ganetik be, goitik datorkioz euskerari itobearrak eta esturak. Galtzen dana Euskereak galtzen dau. Eta bizirik dirauanari ez laguntzea zer da?

"Itxastarrak". Itz onen barruan, Bermiarrak ebagi oi dabenez Its-sora joan diran, joaten diran eta joango diranen ingurua eta giroa artzen da. itsas jentea, sendi eta auzoak, guztiak itsasoaren aizeak igurtziak, aren amaibako orro apalaren oiartzunean durundipetuak. Eta kresal usalna, kresal miña...

Liburu onen egilea, euskeraz idazten sekula aspertu ez dan ondarrutarra: Augustin.

Zaartzen asia dala esaten deustan arren, oraingoan be, seiña, ume barria ekarri deusku onen lumeak euskal seaskara.



Zubikararen liburuak zenbat? Eleberriak, teatru lanak, ipuinak, olerkiak, kantak, istori gaiak, artikulua... ez jakin zenbat.

Liburu barriaren ondorik, irizleak or agertuko dira. Premiñazko dira eta betoz orduan onean. Orraitio mundua aurrera, eta beti gauza ez bardina edo barriraztasuna gura da. Pikutara joanak ei dira arako elaberria erromantikoak oituzkoak, istorikoak... kontakizun lau, apal eta jarraikoak.

Menturazko zerak azaldutea barik, kontaketearen abenturea el da kikikagarrien.

Zearkako jarduna, barruko isuri eta ikuspegiaren ugaritasuna, flashback eta sikologia... Eco idazle italiarrak bere Lan Edegian bide urratzen jardun dau abanguardismoaren zidor eta bidexkak ikasi eta erakutsi bearrez, gurlotasuna, zi mardi usaina, bitarikoak...

Orraitio Umberto Eco berak, ainbeste teoria egosi ondoren, literatura mamintsua dan bere leenengo liburu 1980 urtean argitaratu dau, italian, 48 urteetara eldu danean, eta teoria mee zorrotzak alde batera laga eta sekulako nobela lodia eskeini deutse edozeini, kontakizun dana kontaketa jatorrez burutu bear dala konturatu dalako. Sekulako liburu barrokoa da, moduetan izan be "Il nome della rosa". Sendotikak bide ertzean lagata.

Ondo da elitearentzat nobela sikologitsu eta teknikaz edo teknikakeriaz orniduz idaztea. Eta euskeraz idaztea, ta ez poliglot. Bada, orrelako lanak zeinek irakurteko, il zan amamak, Txiritxuk, ala idazleak berak bakarrik?

Eskolan ikasi ez dalako, euskeraz liburuak irakurri aal izatea neketsua da geien bat erri zeearentzat. Urri lauak euskeraz irakurten ez ba dau, berba egitean atzerantz bagoaz, irakurtean ez gara aurrerantz joango. Ez gabiz bapere txantxetan.

Liburu au irakurteko egin da. Irakurteko bape gogorik badau, "Itxastarrak" eskuan artu dagianak baizen laster jarraian ekingo deuta, sailean joango da, prosa argia, erreza, gatz-piperrez egoki maneatua dalako. Eta misterioz inguratuz.

Orriak irauli alean, aurrera ta aurrera joango da, lerroak lerro begiak jango ditu, adimenez irunsi, jakingureak zirikatu dau-ta.

Elebarria idazlearen lana da, historia bat da, ez historia bera.

Tokiko giroan eta sasoi jakiñean eratu. Txomin Agirrek arako "Arranondo" asmau eutsan toki orri. Augustinen "Ondardi" aldean sartu dau elebarri au. Idazle biok ondarrutarrak. Orraitio, lenengoa abadea, lerroetan. Zubikarai'k, oster, gatz lodia erabili daike. Eta darabil.

Iztegiaren esiak urrunagora daroaz Zubikarai'k, eta berba zorrotz, ausartiak eta latzak aukeran erabiltea dagokio, benetasun trinkoagoa emonaz.

"Realismo" giroan egin euskuzan "Kresala" eta "Garoa" Txomin'ek. Eredu onetako dogu gaurko "Itxastarrak" be,

Toki jakin onetan sustraitua da, baina orain eun urteko aroan. Uria txikiago zan, lagunak be urriago, baina mendu ta aiurri berekoa, erri zindo, zintzo, langille, bulartsu, bizigurakoa.

Nobelaren gaia eta aria emagarriak dira. Bestalde jakingarriak diran oitura, ekandu, lan-modu, orduko estura eta gurariak, amesak eta oinazeak, maila apalean geienbat.

Augustinen nobela onetako pertsonaje nabarmena —biribilla— Edward M. Forester-en euakeraz bat da. Simon "Simon zarra". Liburuko bizitzaz orain eun urte emen bizi izan zana. Irakurtera ez ekiana, baina bizitzako zéretan, bere lan berezietan gizon aitua, arteza, adoratsua.

Kitolis aguretxoak "Kresala"-n guztiak jatortzat etsi daben kapitulu urduria berea dau.

Bestalde, orren iturrja Resurrección Maria Azkue'ren "Arrantzaleak Gran-kanton" lantxuan ez ete dagoan itandu dogu.

Liburu barri onetan, barriz, Simonek ia edapen osoa berea dau.

Nobelagilleak, nordan orren inguru, fabula ziztatzalea ta ernagarria sortu eta jaso aal izan dau.


Eta, liburuak akatsik? Ez da utseziña dan gizonik. Eta beraz, gizonaren lauak izan oi ditu. Bai. Ederlanak be bear ditu akatsak. Eta arrainak zakatzak.

Pentsamentuak zorrotzaren zorrotzez buru garunetan euki barik, alkarrizke-ta luzeetan datoz kanpora. Umore baltza textulari teknjka baserritarrez emoten deusku.

Idazlea ez da murrizt gurako, ugari aldeko baiño. Orraitio ez dau liburuak beste iñoren azalpen bearrik, asieratik amaierara ulertzeko.

Nobela bat idazte orduan, Eco-k semiotika morroskoari ostikadea emon deutsa.

Erkiaga'tar Eusebio



# ITXASOA ETA ESAERAK

- Andrea, sua ta ITXASOA gustiz da gaiztoa.
- ITXASOAK errekek, iturriak eta ibaiak iruntsi.
- Gizonak ITXASOARI: Ezkondu aiz, mantxotuko aiz bai.
- Gu Ameriketara abiatu ezkeru, ITXASOA agortuko yuke.
- Bortiva eta ITXASOA ezdionak igari, ez daki otoi egiten Jaungoikoari.
- Itxas gori, aizetsu.
- Itxas zuri, aize edo euri.
- Itxaso guztiak igaro ta bazterrean ito.
- itxasoak adarr;k ez.
- Itsasoko legeak onak on eta gaiztoak neurri bageak.

Iru gauza munduak alperrik daudenak: egunez illargia, ITXASOAN euria ta gizonezkoen titiak.

—Iru gauzetarik bear du begiratu zuur denak: emazteari sekretuen fidatze-tik, leorrez doakelarik itsasoz abiatzetik, egun guzia alfer egoitetik.

- Itsasoak ez du adarrrik.
- Itsas ura pozoin jendentzat, osagarri arraintzat.
- Itxas egaleko aizea, ura bera duin ezea.
- Itxas gori aizetsu, itxas zuri, aize edo euri.
- Itxasoan ez dago jarrilekurik.
- Itxasoko arraiñik onena, arrantzateko dagoena.
- Itxasoan ura ta zerua; ta konforme ez dana, ondura.
- Arraina itxasoan, txoria aidian, emazte zurra etxian.
- Itxas aldian ba da, portu eskiñetan; ostarantzean barriz estaziñoetan.

(Karabiñeruen bizitza).

—Itxasotik portura dator ontzia, a errekestaten dauka biar nagusia; baña emon ezkeru ixilik saria, libre itxiko dautse gauzari pasia. (Karabiñeruen bizitza).

- Itxasoko arraiñari erakutsi egiozu igerika.
- Itxas lakatza Ondarroan, itxas triku Mutrikun.
- Jorratu ta izorratu batera egiten ei eben baserrian; orrelako aukerarik ez mariñelak Itxasoan.
- Neskazarrak etxeakoak baiño Itxasokoak estimaziño geiago. (Neskazarra = arrain mota bat).

# OÑATIBIA'TAR MANU'K JASOTAKO ESALDI JATORRAK

— Aita ez al dago ondo?

— Ez. Trankazoarekin OI-ALDE egon bear du.

---

— Ori gezurra da! BATEDONBATEK asmatua da!

---

— Bart eztulik egin al dezu?

— Ezta ALERIK ERE...

---

— AMAREN BEARRA EZINBESTEKOA DA.

---

— Amaren maitasuna NEURTU EZIÑALAKOA da.

---

— Orain esnatu OTE DA?

---

— Aztu, ala?

— DEITZEKOTAN nintzan.

---

— Lan geyegi egiten ari zara! LERGAIXTO egingo dezu!

---

— GOIZ-GOIZ jaiki eta LANARI EKITEN DIOT.

---

— GOIZ-OSOAN GAIZKI-ESAKA JARDUNA DA.

---

— Joxemari etxean al da?

— Ez! Aterea da.

— Aspaldi?

— ORDU-BETE BA-DA.

— Oraindikan ETXE-ALDETIK IZANGO ZALAKOAN deitu diot.

---

Agurtzerakoan:

— ONDO IZAN! edo ONGI IZAN!

— Edo ZORIOÑI ETA BERRI-ON!